



# **EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANAREN APLIKAZIOA ETA GARAPENA**

**Egileak:** Izaskun Barbarias Garaizar

Izaskun Zuntzunegi Legarreta

**Tutorea:** Jose Inazio Mosteiro Robredo

## AURKIBIDEA

1. Laburpena
2. Sarrera
3. Zierbena. Datu geografikoak
4. Datu soziolinguistikoak
  - 4.1 Hizkuntza gaitasuna
  - 4.2 Hizkuntzaren bilakaera Zierbenan
  - 4.3 Datuen eboluzioa: erabilera
5. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana
  - 5.1 Helburu estrategikoak
    - 5.1.1 Euskararen erabilera
    - 5.1.2 Euskararen jabekuntza
    - 5.1.3 Euskararen elikadura
  - 5.2 Helburuak lortzeko zehar lerroak
6. Zierbenako udaleko Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren plan estrategikoa (2014 – 2017)
  - 6.1 Euskara sustatzeko ibilbidearen hastapenak
  - 6.2 Udal barneko euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko Plana
  - 6.3 Zierbenako Udalak onetsitako plan estrategikoa
7. Herri mailan egindakoaz hainbat aipamen
  - 7.1 Orain arte egindakoaren balorazioa eta ondorioak
  - 7.2 Balorazio horiek kontuan hartuta, indarguneak eta ahuleziak

8. Zierbenako Udalak 2017 urtean ekintza planean jasotako esparruak, neurriak eta ekintzak

- 8.1 Ekintzak aurrera eramateko jarduerak

9. 2018tik aurrera ESEP helburuen artean zeintzuk aukeratu aztertu, eta irizpideak markatu. Gure proposamena.

- 9.1 ESEP zein populazio talderi begira egin behar da bereziki

- 9.2 ESEPen jarraipena eta balorazioa

10. Ondorioak

11. Bibliografia eta informazio iturriak

## 1 Laburpena

---

Lan hau Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren inguruko hausnarketa bat da. Lan honen helburu nagusia Euskara Sustatzeko Ekintza Plana herri erdaldun batean nola aplikatu eta garatu daitekeen pentsatzea izan da. Baina hori ondo bideratzeko, aurretiaz egindako lanaren hausnarketa eta balorazioa egin behar izan ditugu.

Hasieran Zierbenako datu batzuk aurkeztu ditugu lan egin dugun ingurunean ondo kokatzeko beharrezkoak iruditu baitzaizkigu. Gero, lan teorikoa egin dugu, ESEPen helburu estrategikoak zein diren azaldu eta horiek lortzeko zehar lerroak aipatu ditugu.

Teoriaren birpasa eta laburpena egin ostean, teoria hori Zierbenan nola aplikatu den ikusi dugu, eta horren balorazioa egin. Ateratako ondorioak kontuan hartuta, herriko indarguneak eta ahuleziak jaso ditugu. Horretarako Reflect Ekintza ikuspegi metodologikoan oinarritu gara, nahiz eta ez diogun zehatz mehatz metodologia horri jarraitu. Ondoren, 2017an ekintza planean jasotako esparruak, neurriak eta ekintzak zerrendatu ditugu, eta ekintza horiek burutzeko jarduerak ere proposatu ditugu.

Orain arteko azterketa kontuan izanda hurrengo urteetarako lana planifikatu dugu. Zer egin dezakegun eta zer ez zehaztu dugu, egin nahi duguna egiteko zein errekurtsorekin konta dezakegun aztertu dugu, eta, azkenik, bereziki zein populazio talderi begira egingo dugun lan pentsatu dugu, lehentasunak jarri ditugu. Jarduera zehatzak aukeratu ditugu, baina gure herriaren errealitatera egokitu behar izango ditugu, ez dugu ahaztu behar gure herria duela hamar urte zerotik abiatu zela berreuskalduntze prozesuan, eta lan handia egin bada ere, emaitzak ez dira hain nabarmenak, lan asko dugu egiteko, beraz, ekin diezaiozun.

## 2 Sarrera

---

Lan honetan Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren inguruan hausnartu dugu. Lan hau egin nahi izan dugu, pentsatu dugulako hausnarketarako momentu ona izan zitekeela. Zierbenako udala 2007an hasi zen euskara sustatzeko lanetan, dagoeneko ia 10 urte igaro dira eta lanean jarraitzeko estrategiaren gainean hausnartzeko beharra ikusi dugu, hasierako indar hura apurka-apurka galtzen joan dela baiteritzogu.

2007an euskara sustatzeko lanari ekin zitzaionean, zaila izan zen nondik hasi zehaztea. Izan ere, Zierbena oso herri erdalduna zen eta ondo pentsatu behar zen nondik ekin. Baina nola edo hala lanean hastea lortu zen, une arrakastatsuak izan ziren, eta iruditzen zaigu azken urteotan lan txukuna egin dela. Hala ere, azkenaldian ikusten dugu euskararen aldeko ekintzak ez direla lehen bezala hartzen, ez ilusio berarekin, eta parte hartzeak ere behera egin duela (ez soilik Euskara Arloak antolatutako ekintzetan, asistentzian izandako jaitziera orokorra izan baita). Herritarrek motibazioa eta ilusioa galdu dutela deritzogu, eta horrek zer pentsa eman zigun.

Gauzak horrela, honen inguruan hausnartzeko momentua zela ikusi genuen. Gure lanaren helburua egindakoa baloratzea izan da. Egindakoak nola egin diren, non ez den asmatu, non hobetu daitekeen... Eta hori helburu bakar batekin egin dugu, datozen urteetako lana zein norabidetan egin behar dugun erabakitzeko, egoera ez baita duela 10 urte zena. Etorkizunari zerbait berria proposatzeko aukera baliatu nahi dugu, planifikazio berri bat egin, eta lanean jarraitzeko bideak markatu, jendeak ilusioa berreskuratu eta euskara berreskuratze lanean parte aktibo bihurtzeko asmoarekin. Halaber, euskarari egin dakiokeen edozein ekarpen ona dela deritzogu.

Hausnarketa sakona egin dugu. Zierbena bezalako herri batean ESEPen aplikazioa eta garapena nola bidera daitezkeen pentsatzeari denbora dezente eskaini diogu, eta uste dugu lan polita eta erabilgarria atera zaigula. Espero dezagun pentsatutakoak aplikatzean hasieran lortu genuen erantzuna lortzea eta denon artean herri euskaldunago bat egitea.

Eskerrak eman nahi dizkiogu Jose Inazio Mosteiro Robredo gure tutoreari emandako aholkuak emateagatik, eta HPSn egin duten lana eskuragarri jartzeagatik. Lan hori oso lagungarria izan zaigu, hortik atera baititugu ideiak gure ekintzak aurrera eramateko jardueretarako. Halako lanak konpartitzea gauza handia da, eta asko errazten du atzetik datozenen lana, eskerrik asko, beraz, eta, segi fin lanean, asko dugu egiteko eta.


### 3 Zierbena. Datu geografikoak

---


Zierbena udalerria Bizkaiko kostaldean dago, Bizkaiko ipar-mendebaldean, Bilbotik 20 km ipar-mendebaldera, Muskiztik 8 km ipar-ekialdera, eta Santurtzitik 6 km ipar-mendebaldera.

Zierbenako portua erabat aldatu da 1990eko hamarkadan Bilboko Portuaren handitze lanak hasi zirenetik eta Zierbenako herritar gehienek bertan egiten dute lan. Esan dezakegu Zierbena udalerriaren iturri ekonomiko garrantzitsuen delako, bertan kokatuta baitaude udalerriko enpresa guztiak.

Udalerriko mendi nagusiak Luzuero (307 m) eta Montaña (319 m) dira.



Lehen, Abanto eta Zierbenaren parte zen gaur egun Zierbenak hartzen duen lurraldea ere, baina, 1995. urtean, prozesu luze baten ondoren, Zierbena udalerri bihurtu zen, eta gaur egun bi udalerri dira hauek: Zierbena eta Abanto-Zierbena.



Zierbena sakabanatuta dauden sei auzunek osatzen dute: La Cuesta, azken urteotan Aldapa izenez ere ezaguna; La Arena, Arena hondartza dagoen auzoa; Portua, Valle, Kardeo eta San Mames. Geografia eta administrazioaren aldetik La Cuesta da udalerriko auzorik garrantzitsuena eta herriaren erdigunetzat har dezakegu.

Zierbenako biztanleak itsasoari lotuta bizi izan dira urte luzez, eta, batez ere, arlo horretako lanetan jardun izan dute, baina baziren inguru hartan nekazari eta abeltzainak ere.

Itsasoko lanetan jarduten zutelako Zierbenako itsasgizonek *galipo* izengoitia hartu zuten, arrantzaleek erabiltzen zuten saskiaren izena. Otar horretan garraiatzen zituzten eguneko janaria, itsasorako jantziak, suestea eta arrain parteak, egunean harrapatutakotik tokatzen zitzaizena.

Zierbena Muskizko haranean zegoen. Muskizko harana Enkarterri eskualdea osatzen zuten 9 haranetako bat zen. Goiz Erdi Aroan, partikularren ekimenez eraturiko lehenengo monasterio edo parrokiak sortu ziren haran horietan, eta gero, haien inguruan herrixkak hazi ziren. Herrixka horiek apurka-apurka indarra hartuz joan ziren, herri iraunkor bihurtu



ziren, eta, denboraren poderioz, sendotu egin ziren administrazio-erakunde bilakatu arte: holaxe sortu zen kontzejua. Geroago, parrokia-kontzeju horietatik beste erakunde mota bat sortu zen: errepublika. Orduan, Somorrostro harana hainbat errepublika eta udaletan zatikatu zen: "Cuatro Concejos" (Zierbenako San Roman, Abantoko San Pedro eta Santa Juliana, eta Muskizeko San Julian) eta "Tres Concejos" (Santurtziko San Jorge, Sestaoko Santa Maria eta Trapaga Araneko San Salvador).

1842 urtean Abantoko San Pedro eta Santa Juliana, eta Zierbenako San Roman kontzejuek udalerri bateratua osatu zuten: Abanto eta Zierbena. 1878 urtean Zierbenak banatzeko lehendabiziko ahalegina burutu zuen; bigarrena, 1941ean egingo zuen; eta azkenik, prozesu ikaragarri luze baten ostean, 1995 urtean aparteko udalerri bihurtu zen Zierbena.

Euskal Herri barruko migrazio prozesu baten ondorioz Gipuzkoako herritar asko Zierbenara etorri ziren 1874an gertaturiko II. Karlistada garaian. Hori dela eta, herri honetako biztanleek dituzten deituetako asko, gehienak, Gipuzkoatik datoz, Goierritik.

Goierritik etorritako euskaldun horiek Euskal Herriko beste herri batera migratu bazuten ere, nabarmendu behar dugu Kantabriatik hurbil dagoen herri batera heldu zirela. Kantabriatik hurbil dagoen herri batera, zeinetan hizkuntza-egonkortasuna galdua baitzegoen, eta euskararen ezagutza hutsaren hurrengoa zen; ondorioz, etorritako euskaldunek beren hizkuntza galdu egin zuten.

Martinez de Lunak dioten modura, batzuetan migratzen duten taldeak beraiek izan daitezke hizkuntza mantentzeko interesik ez dutenak, harrerako herrialde berrian kokatzeko hautu garbia egiten badute, askotan ez baitute oso gustuko izaten desberdinak direla gogoraraztea. Izan ere, uste dugu herritar horiei Carme Junyent-ek dioena gertatu zitzaizela: *hizkuntza baten funtzioak murrizten direnean (zein hizkuntzatan mintzo naizen familiarekin, adiskideekin, lankideekin edo ikaskideekin, zuzendari jaunarekin, edo etxeako neskamearekin edo ezezagunekin, medikuarekin edo epailearekin), orduan etsairik kaltegarrienarekin borrokatzen ari gara: etsai ikusezina. Hizkuntza baten estatusa*

*ahultzen hasten denean, eta batez ere bere hiltunen mailak behera egiten duenean (norbere hizkuntzan mintzatzea baserritar, probintziano, txobinista, "atzerakoi" eta abar deitzeko arrazoi izaten denean) lehenbailehen kontrapisu baten bila hasi beharko dugu presio horri aurre egiteko, ez badugu nahi komunitate hori bete betean eta itsu-itsu joan dadin hizkuntza menperatzaileak eskaintzen dion mundu zoriontsurantz [Junyent, 1996: 47-48].*

## 4 Datu soziolinguistikoak

---

### 4.1 Hizkuntz gaitasuna

Hizkuntza gaitasuna hizkuntza erabiltzeko trebetasuna da. Kontzeptuak, sentimenduak, gertakariak eta iritziak ahozko eta idatzizko diskurtsoen bidez adierazi eta interpretatzeko gaitasuna da.

Hizkuntz gaitasuna da gizabanakoak hizkuntz baten hiztuna izan ahal izateko bete behar duen lehenengo baldintza. Eta dagoeneko pertsona batek hizkuntza hori badaki, orduan hizkuntza horretan duen gaitasun erlatiboa da garrantzitsua, hau da, norbanako mailan bete beharreko ezaugarria da pertsona elebidun edo eleanizdunak euskara menperatzea dakizkien gainerako hizkuntzak bezain ondo edo hobeto, euskararen erabilera errazteko eta areagotzeko.

Jarraian jarri dugun taulan Zierbenako egoera ikus dezakegu. 2011n Eustatek egindako inkestatik ateratako datuak bildu dira bertan, eta, kasu honetan, euskararen ezagutza adinka jasotzen da.

Beheko taula lortzeko, Biztanleria Zentsuko oinarrizko lau adierazleei euskararen ezagutzaren gaineko tipologia bat ezarri zaie ("ezer ez", "zailtasunak ditu", "ondo"): ulertzen duzu?, hitz egiten duzu?, irakurtzen duzu?, idazten duzu?

**Euskaldunak:** multzo horretan euskaldun alfabetatuak, ia euskaldun alfabetatuak eta euskaldun ez alfabetatuak sartzen ditugu.

- **Euskaldun alfabetatuak:** euskara ondo ulertu, hitz egin, irakurri eta idazten dute.
- **Ia euskaldun alfabetatuak:** neurri batean alfabetatuta daude, euskara ondo ulertu eta hitz egiten dute, baina zailtasunez irakurri eta idazten dute hizkuntza horretan.
- **Euskaldun ez alfabetatuak:** alfabetatu gabe daude, euskara ondo ulertu eta hitz egiten dute, baina ez dakite irakurtzen eta idazten hizkuntza horretan.

**Ia euskaldunak:** multzo horretan ia euskaldun alfabetatuak, ia euskaldun ez alfabetatuak eta ia euskaldun pasiboak bildu ditugu.

- **Ia euskaldun alfabetatuak:** euskara ondo edo zailtasunez ulertzen dute, zailtasunez hitz egiten dute, eta ondo edo zailtasunez irakurri eta idazten dute hizkuntza horretan.
- **Ia euskaldun ez alfabetatuak:** alfabetatu gabe daude baina euskara ulertzen dute ondo edo zailtasunekin, zailtasunez hitz egiten dute, eta ez dakite irakurtzen eta idazten hizkuntza horretan.
- **Ia euskaldun pasiboak:** euskara ondo edo zailtasunez ulertzen dute baina ez dute hizkuntza horretan ezer esaten.

**Erdaldunak:** ez dute euskara ulertzen, eta hitz egin ere ez.

| ZIERBENAKO 2 URTETIK GORAKO BIZTANLERIA, EUSKARA MAILAREN ARABERA. 2011 |             |                 |                               |                                     |                                     |                       |                                     |                                           |                                 |                |
|-------------------------------------------------------------------------|-------------|-----------------|-------------------------------|-------------------------------------|-------------------------------------|-----------------------|-------------------------------------|-------------------------------------------|---------------------------------|----------------|
|                                                                         | GUZTIR<br>A | EUSKALDUNA<br>K | EUSKALDUN<br>ALFABETATUA<br>K | IA<br>EUSKALDUN<br>ALFABETATUA<br>K | EUSKALDUN<br>EZ<br>ALFABETATUA<br>K | IA<br>EUSKALDUNA<br>K | IA<br>EUSKALDUN<br>ALFABETATUA<br>K | IA<br>EUSKALDUN<br>EZ<br>ALFABETATUA<br>K | IA<br>EUSKALDU<br>N<br>PASIBOAK | ERDALDUNA<br>K |
| Zierben<br>a                                                            | 1.426       | 364             | 324                           | 22                                  | 18                                  | 430                   | 317                                 | 29                                        | 84                              | 632            |
| 02-04                                                                   | 25          | 21              | 2                             | 7                                   | 12                                  | 3                     | 0                                   | 3                                         | 0                               | 1              |
| 05-09                                                                   | 55          | 47              | 39                            | 7                                   | 1                                   | 4                     | 4                                   | 0                                         | 0                               | 4              |
| 10-14                                                                   | 52          | 47              | 46                            | 1                                   | 0                                   | 2                     | 2                                   | 0                                         | 0                               | 3              |
| 15-19                                                                   | 46          | 32              | 32                            | 0                                   | 0                                   | 10                    | 10                                  | 0                                         | 0                               | 4              |
| 20-24                                                                   | 85          | 47              | 47                            | 0                                   | 0                                   | 22                    | 17                                  | 3                                         | 2                               | 16             |
| 25-29                                                                   | 116         | 42              | 42                            | 0                                   | 0                                   | 59                    | 50                                  | 4                                         | 5                               | 15             |
| 30-34                                                                   | 124         | 41              | 40                            | 1                                   | 0                                   | 53                    | 46                                  | 5                                         | 2                               | 30             |
| 35-39                                                                   | 136         | 27              | 25                            | 2                                   | 0                                   | 55                    | 44                                  | 2                                         | 9                               | 54             |
| 40-44                                                                   | 140         | 24              | 24                            | 0                                   | 0                                   | 57                    | 44                                  | 1                                         | 12                              | 59             |
| 45-49                                                                   | 127         | 12              | 10                            | 1                                   | 1                                   | 58                    | 41                                  | 3                                         | 14                              | 57             |
| 50-54                                                                   | 114         | 5               | 5                             | 0                                   | 0                                   | 41                    | 27                                  | 4                                         | 10                              | 68             |
| 55-59                                                                   | 89          | 2               | 2                             | 0                                   | 0                                   | 22                    | 9                                   | 2                                         | 11                              | 65             |
| 60-64                                                                   | 77          | 7               | 7                             | 0                                   | 0                                   | 18                    | 7                                   | 1                                         | 10                              | 52             |
| 65-69                                                                   | 71          | 6               | 1                             | 1                                   | 4                                   | 9                     | 1                                   | 0                                         | 8                               | 56             |
| 70-74                                                                   | 63          | 2               | 1                             | 1                                   | 0                                   | 3                     | 3                                   | 0                                         | 0                               | 58             |
| >=75                                                                    | 106         | 2               | 1                             | 1                                   | 0                                   | 14                    | 12                                  | 1                                         | 1                               | 90             |

Taula horretan islatzen da Zierbenako egoera. Datuak 2011koak dira (arestian esan bezala, hori baita EUSTATEk datu horiek argitaratutako azken urtea), baina gutxi gorabeherako egoeraz jabetzeko aski dugu datuokin. Esan behar dugu euskararen ezagutza handitu egin

dela azken urteotan. 2006an Eustatek egindako inkestaren arabera, euskaldun eta ia-euskaldunak gutxiago ziren erdaldunak baino, txikia zen aldea, baina gutxiago ziren. 2011ko datuetan, euskaldunak eta ia-euskaldunak batuta gehiago dira erdaldunak baino.

Ikus dezagun esandakoa kopuru zehatzetan:

| 2006        |                |            | 2011        |                |            |
|-------------|----------------|------------|-------------|----------------|------------|
| Euskaldunak | Ia-euskaldunak | Erdaldunak | Euskaldunak | Ia-euskaldunak | Erdaldunak |
| 280         | 327            | 660        | 364         | 430            | 632        |
| 607         |                | 660        | 794         |                | 632        |

Bestalde, datuei erreparatuta argi ikusten da euskaldun gehienak 50 urtera artekoak direla, eta hortik gora asko jaisten da kopurua. Euskaldunetan gehienak alfabetatuak direla ere esan behar da, beraz, Zierbenan ez daukagu euskaraz alfabetatu gabeko adineko jenderik, are gehiago, ez dago apenas alfabetatu gabeko euskaldunik. Alfabetatu gabeko euskaldun bakarrak 2-4 adin tartean ditugu, 12 guztira. Beraz, adineko gehienak erdaldunak dira. 75 urtetik gorako guztiak, 2 izan ezik, erdaldunak dira, eta adinean beheraka eginez gero, kopuruak nahiko altuak dira 30-39 urtekoetaraino, gazteagoetan euskaldun gehiago baitago.

Datu horiek ikusita, zer esan dezakegu? Bada, euskaldun gehienak 50 urtetik beherako herritarrak direla, eta horiei begira jarri behar dugula fokua. Datuek esaten digute ezagutzak gora egin duela, baina hizkuntza erabiltzera bultzatu, animatu behar ditugu, eta horretan jarri behar dugu indar guztia orain. Guraso berri, eta haur eta gazteak dira Zierbenan sendotu behar ditugunak, haietatik sortuko baitira etorkizuneko euskaldunak baldin eta hizkuntza transmititzen hasten badira. Erabilera da bultzatu behar duguna, ezer gutxi lortuko dugulako euskara erabiltzen ez duten euskaldun berri gehiago izanda.

Laburbilduz, euskararen erabileraren aldetik 25 urtera artekoak dira eragiteko talderik aldekoenak, eta horietan zentratu behar dugu, hemendik belaunaldi batzuetara hortik etorriko baita, agian, hizkuntzaren transmisioa.

## 4.2 Hizkuntza gaitasunaren bilakaera Zierbenan

Jarraian, Zierbenako euskararen ezagutzari buruzko datuak aurkezten ditugu. Egoera apur bat aldatu bada ere, EUSTATEk 2011n egindako inkestatik ateratako datuak erabili ditugu, horiek baitira indarrean daudenak.

Taula honetan, 2 urtetik gorako biztanleek izandako bilakaeraren datuak ditugu.

| Urtea | Zierbenako biztanleria Guztira | Euskaldunak  |                   |                              |                       | Ia euskaldunak |              |                   |          | Erdaldunak |
|-------|--------------------------------|--------------|-------------------|------------------------------|-----------------------|----------------|--------------|-------------------|----------|------------|
|       |                                | Guzti-<br>ra | Alfabetatu-<br>ak | Erdizka<br>alfabetatu-<br>ak | Alfabetatuga-<br>beak | Guztira        | Alfabetatuak | Alfabetatu-gabeak | Pasiboak |            |
| 1996  | 1.132                          | 131          | 121               | 5                            | 5                     | 193            | 171          | 7                 | 15       | 808        |
| 2001  | 1.189                          | 266          | 146               | 10                           | 10                    | 327            | 256          | 16                | 55       | 696        |
| 2006  | 1.267                          | 280          | 255               | 21                           | 4                     | 327            | 246          | 29                | 52       | 660        |
| 2011  | 1.426                          | 364          | 324               | 22                           | 18                    | 430            | 317          | 29                | 84       | 632        |


Datu horien arabera, 1996tik 2011ra populazioak gora egin du udalerrian, baita euskaldunen portzentajeak ere. Alde batetik, urte horietan ia-ia bikoiztu egin da euskaldun kopurua. 1996 urtean euskaldunak % 11,57 baino ez ziren, ia-euskaldunak % 17,04 eta erdaldunek osatzen zuten biztanleriaren gehiengoa, % 71,37. Datu horiek 2001ean aldatzen hasi ziren; hain zuzen ere, euskaldunak % 22,37 izatera iritsi ziren, ia-euskaldunak % 16,23 eta erdaldun kopurua, aldiz, % 58,53ra jaitsi zen. 2006ko euskaldun kopuruari dagozkion datuak 2001ekoekin alderatuz gero, berdintsu mantendu zirela ikus dezakegu, hau da, % 22,09 eta % 22,37 hurrenez hurren, baina, ia-euskaldun kopuruari dagokionean, nabarmen egin zuten gora datuek % 16,23tik % 25,80ra igo zirelarik (urte horietan gertatutako igoera, herritar askok euskalduntze prozesuari ekin izanari egokitzen

diogu, biztanle kopuruak ez baitzuen horrenbesteko gorakada izan, eta migrazio berezirik ere ez zen gertatu). Beste alde batetik, urte horietan erdaldun kopuruak beheranzko joera izan zuen. EUSTATen 2011ko inkestan jasotako datuen arabera, euskaldun kopuruak gora egiten jarraitu du eta % 25,53 dira dagoeneko, ia-euskaldunak % 30,15 eta erdaldunak % 44,31.

Hasieran esan dugun bezala, Zierbena Bizkaiko ipar-mendebaldean, dagoen herri txikia da, Kantabriatik oso hurbil dago, eta, nahiz eta bertako herritarrek Santurtzira edo Muskizera joateko joera izan, ohitura handia dute Kantabriako herrietara ere joatekoa; hori dela eta, ez dute euskararen “beharra” sentitzen.

Aipatzekoa da baita, Bilboko Portuaren parte handi bat bertan kokatuta dagoela. Horrek bertako ekonomiari asko laguntzen dio, baina, hizkuntzaren alorrean, euskarari kalte handia egiten dio. Izan ere, Zierbenako edo inguruetakoko herritarrak Portuko enpresaren batean lanean hasten direnean, ingelesaren beharra sentitzen dute normalean, bertako enpresek atzerriko enpresa askorekin baitituzte hartu-emanak (enpresek ezinbestekotzat jotzen dute ingelesa jakitea; euskara jakitea, ordea, ez da ezinbestekoa). Halaber, Ingalaterrara joan-etorriak egiten dituen ferrya ere bertan porturatzen da, eta datozen bidaiarien hizkuntza ingelera izaten da nagusi, euskararen kaltetan.

Hona hemen gertatutakoaren progresioa grafiko bidez:



Grafikoan oso ondo islatzen da urte horietan Zierbenan gertatutakoa.

Batetik euskaldunak ditugu. 1996tik 2011ra bitartean euskaldun kopuruak nabarmen egin zuen gora. 1996tik 2001era gertatu zen lehenengo gorakada, eta 2001 eta 2006 artean apur bat jaitsi zela ikus dezakegu, baina ez zen hainbesteko izan. Eta, 2006tik 2011ra berriz ere gorakada nahiko handia izan zen.

Ia euskaldunak diren biztanleetan ez dugu beherakadarik ikusten urte horietan. Gorako joera izan du urtez urte modu progresiboan. Egia da, 2001 eta 2006 artean ez zuela igoerarik izan, mantendu egin zen tarte horretan. Eta 2006tik 2011ra izan zuen berriz ere gorakada.

Eta azkenik erdaldunak ditugu. Grafikoaren lehenengo zutabean argi ikusten da nabarmena zela erdaldun eta euskaldunen arteko aldea, eta oraindik ere alde handia badago ere, 1996tik 2011ra nabarmen txikitu zela ikus daiteke. 1996tik 2001era, euskaldun kopuruak gora egin zuen urteetan, erdaldun kopuruak jaitsiera nabarmena izan zuen, gero 2001etik 2006ra erdaldunen kopuruak gora egin zuen berriro baina 2011n berriz ikus dezakegu jaitsiera nabarmena.

Datuok ikusita, hezkuntza arloan egin den ahaleginagatik batez ere, pentsa dezakegu azken urteetan egindako lanak fruituak eman dituela. Zutabe gorria eta urdina elkarren gainean jarritz gero, euskaldun eta ia euskaldunak gehiago dira erdaradunak baino, eta datu garrantzitsua da hori, 1996an zail samar ikusten genuena. Joera, beraz, positiboa da.

Txepetxen arabera, hizkuntza bat oinarritzko hiru faktore hauengatik ikasten da: motibazioa, ezagutza eta erabilera:


“Entendemos por motivación las razones, deseos o intereses que mueven a aprender una lengua o a permanecer en ella. Entendemos por percepción la capacidad y el proceso de captar su funcionamiento. Y entendemos por ejercicio (o uso) la operación efectiva de



usarlo en cualquiera de las funciones lingüísticas que la comunidad posee en un momento histórico concreto”. (ibid., 35. Orr.)

Azken urte honetako datu positibotzat har daiteke Zierbenako jubilatutako talde bat euskara ikasten hasi dela. Herri erdaldun batean bizi dira, eta euskara ikasteko inolako beharrik gabe ikasten hasten gauza handia da, batez ere horrek erakusten duelako euskararen aldeko jarrera dutela, eta motibazioa badaukatela, gehienak haien ilobekin euskara erabili ahal izateko eta haurrek esaten dutena ulertzeko hasi baitira ikasten. Kontuan hartu behar da, 60 urtetik gorako euskaldunak ez dagoela herrian, eta jubilatutako horiek euskararekin izan duten harremana hutsaren hurrengoa izan dela. Hori kontuan hartuta, baikor izateko beste arrazoi bat badugu erantzun horretan.

#### 4.3 Datuen eboluzioa: erabilera



Etxeko hizkuntza adinaren arabera. Zierbena, 2011 (%)

| Lurraldea | adina      | Urtea | Guztira | Euskara | Erdara | Biak | Beste |
|-----------|------------|-------|---------|---------|--------|------|-------|
| Zierbena  | 2-14 urte  | 2011  | 100,0   | 7,6     | 79,5   | 12,9 | 0,0   |
| Zierbena  | 15-34 urte | 2011  | 100,0   | 1,9     | 90,8   | 4,6  | 2,7   |
| Zierbena  | 35-64 urte | 2011  | 100,0   | 2,2     | 94,7   | 2,3  | 0,7   |
| Zierbena  | >64 urte   | 2011  | 100,0   | 2,1     | 95,4   | 1,3  | 1,3   |

Etxeko hizkuntza adinaren arabera. Zierbena, 2011

| Lurraldea | adina      | Urtea | Guztira | Euskara | Gaztelera | Biak | Beste |
|-----------|------------|-------|---------|---------|-----------|------|-------|
| Zierbena  | 2-14 urte  | 2011  | 132     | 10      | 105       | 17   | 0     |
| Zierbena  | 15-34 urte | 2011  | 371     | 7       | 337       | 17   | 10    |
| Zierbena  | 35-64 urte | 2011  | 683     | 15      | 647       | 16   | 5     |
| Zierbena  | >64 urte   | 2011  | 240     | 5       | 229       | 3    | 3     |

## 5 Euskara Sustatzeko Ekintza Plana

---

Euskararen erabilera areagotzea helburu nagusi duen Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) gizarteratzeko prozesuari hasiera eman zion Eusko Jaurlaritzak 2012an, 2013an bertan martxan jartzeko. Plan honen betebeharretako bat da Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) osatu eta hurrengo hamar urteotako hizkuntza plangintza gidatzea. Hizkuntza politikaren inguruan 2008tik 2009ra izandako Euskara 21 gogoeta-prozesuaren ondorioetako bat izan zen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) berraztertzearen beharra. Hizkuntza plangintza egungo egoerara egokitu behar zen, azken urteotan gizarztearen aldaketei eta hizkuntza alorreko behar berriei hobeto erantzuteko.

Etorkizuneko erronka nagusia hizkuntzaren erabilera areagotzea da, euskararen erabilera ezagutza baino apalagoa baita, hala adierazten digute ikerlan soziolinguistikoek behinik behin.

Hizkuntza gaitasunari dagokionez, V. inkesta soziolinguistikoak emandako datuen arabera, areagotu egin da ezagutzaren eta erabileraren artean dagoen aldea.

- elebidunak dira % 32 hamasei urte edo gehiagoko biztanleen artean (1991n baino 8 puntu gehiago)
- euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenek % 20 osatzen dute (duela hogeit hamar urte baino 4 puntu gehiago)

Populazio gazteenaren artean, eta, bereziki, haur eta gazteen artean, hazkundera nabarmena dela ikusita, ezagutzaren eremuan oraindik ere urrats sendoak egin behar badira ere, euskararen erabilera indartzea da plan honen helburu nagusia, ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea murrizteko ahaleaginean.

Aurrerapauso handiak eman dira euskararen funtzio soziolinguistikoetan eta hedapen sozialean, hala ere, oso ahula da euskarak duen presentzia hainbat gizarte-esparrutan, gehien aurreratu duen eremuetan egoera ez baita inola ere erdaren parekoa. Erabileraren egunerokotasunetik oraindik urrun gaudela ikusita, lehentasunak finkatu beharko dira,

zaila izango baita esparru guztietara era batera heltzea. Beraz, plan honek lehentasunezko helburuak eta eragin eremuak identifikatuko ditu, hizkuntza politikako neurriak erabaki eta aplikatuz euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak eta bermeak eskaini ahal izateko, eta botere publikoek babestu beharreko herritar guztien hizkuntza eskubideak errespetatuak izan daitezen eguneroko jardunean. Gizarte osoaren zeregina den aldetik, herritarren euskararekiko atxikimendua ezinbesteko baldintza da, orain arte egindako ahaleginei jarraipena emateko. Ezagutzen bezainbesteko eragina edo, seguru asko, handiagoa du erabileran herritar bakoitzaren hizkuntzarekiko konpromisoak. Eta atxikimendu hori pertsuasio eta erakargarritasunetik etorri ohi da batez ere.

Erabilera bultzatzeko lanean hiru zutabe hartu behar dira kontuan:

- hizkuntza eskubideen aitorpena eta babesa
- euskararen hiztun-elkartearen dimentsioa
- euskararen eta euskal kulturaren erakargarritasuna

Oinarrizko hiru osagai horiek, beste batzuekin batera, plan honen helburu estrategikoetan eta dagozkien ekintza lerroetan zehaztu eta garatuko dira.

Euskararen normalizazio soziala bermatzeko eta euskal gizartearen elebitasun orekatua lortzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak definituko ditu Euskara Sustatzeko Ekintza Planak, EAEn, maila guztietan euskararen erabilera osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzeko bidean. Edozein direla ere euskararen erabileraren alde egiten diren ahaleginak eta hartzen diren neurriak, hizkuntza politikak beti izango ditu oinarri adostasuna eta progresibotasuna. Horiek beharrezko baldintzak dira hizkuntzen tratamendua onuragarria izan dadin gizarte kohesioarentzat.

Euskararen erabilera bultzatzeko, *Itun berritu baterantz* dokumentuan bildutako hamalau lehentasunezko ildoak izango ditu gidari datozen urteetako hizkuntza politikak. Ekintza plan berriak ildo horiek neurri zehatzez mamitu eta praktikara eramateko moduan egokituko ditu.

ESEPk plan hau martxan jarriko den arloetan aplikatuko diren hiru helburu estrategiko ditu:

## **5.1 Helburu estrategikoak**

Hizkuntza plangintza berria hiru helburu estrategikoren inguruan antolatu da.

**5.1.1** Euskararen erabilera

**5.1.2** Euskararen jabekuntza

**5.1.3** Euskararen elikadura

### **5.1.1 Euskararen erabilera**

Euskararen erabileran gehien eragiten duten faktoreak honako hauek dira: hiztunen kopurua, hiztunek euskaraz egiteko duten gaitasuna edo erraztasuna eta aukerak, inguruan harreman sare euskalduna izatea, hots, familian, lagunartean, auzoan, kalean, sarean eta esparru formalagoetan solaskide euskaldunak izatea, eta, azkenik, hizkuntzen arteko oreka eta berdinkidetasun soziala helburu duen kontsentsuak elikatzen duen hizkuntzarekiko atxikimendua.

Beste maila batean bada ere, eragina du, eta ez nolanahikoa, hizkuntzaren bizitasunaz, indarraz edo adierazkortasunaz dugun pertzepzioak; azken batean, hizkuntzak duen egiazko balio funtzional eta sinbolikoaz dugun usteak.

Erabiliz zorroztzen den tresna da hizkuntza. Erabiltzen ez bada, herdoildu ez ezik kamustu ere egiten baita. Horregatik zaindu behar dira ondo, hizkuntzaren ikuspegitik betiere, familiaren eta eskolaren luzapen eta ingurune diren jardunbide guztiak: kultura, aisia, kirola, teknologia berriak, lan mundua, administrazioa, merkataritza, hedabideak eta bestelako zerbitzu eta jarduerak (erlijiosoak, esaterako). Etorkizuneko erronka nagusia euskaldun guztientzat, bereziki belaunaldi berrietako euskaldunentzat, euskara helduaroko erabilera eremu berezi eta garrantzizkoetarako erakargarri eta gaztelania bezain baliozko egitean datza, esaterako, bai kultura produktuen kontsumorako, bai eta funtzio sinboliko eta afektiboetarako ere, hala nola familiako harremanetarako,

lagunarterako edo gizarte bizitzarako. Herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzu guztiak bi hizkuntzetan emateko gaitasuna egongo dela bermatu behar da.

### 5.1.2 Euskararen jabekuntza

Euskararen jabekuntza edo eskuratze-prozesuan hiru esparru bereiz daitezke:

- Familia bidezko transmisioa
- Euskarazko irakaskuntza
- Helduen euskalduntzea edo euskalduntze-alfabetatzea

Euskara lehen hizkuntza modura belaunez belaun transmititzen da, baina prozesu horretan eskolak ere zeresan handia du. Horrezaz gain, eskolak euskara bigarren hizkuntza gisa transmititzen du, helduen euskalduntzeak bezala.

Hizkuntzaren geroratzea gainerako helburu estrategiko guztien oinarrian dago. Azken urteetako bilakaeraren arabera, esan daiteke belaunaldi gazteetan jabekuntza prozesua bermatze bidean dagoela. Etorkizunean ere bermatzen jarraitu behar dugu. Horretarako aipatutako hiru esparruak (familia bidezko transmisioa, irakaskuntza eta euskalduntze-alfabetatzea) zaindu behar dira, nahiz eta garrantzi ezberdinekoak izan.

Hezkuntza sistema eraldatuko duten berrikuntzak medio, etorkizuneko ikasketa planen eremuan euskarak bi hizkuntza izango ditu bizikide, gaztelania eta ingelesa (edo atzerriko beste hizkuntzaren bat). Sistema hirueledun berriak orain arteko ereduak gaindituko ditu, eta, seguru asko, haien ordeztu hezkuntza-marko bateratu eta malgu bat ezarriko da. Halako baldintzetan eskolak ahalegin handia egin behar du euskara behar bezalako mailan eta sendotasunez irakasteko (Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legeak bere 17. artikuluan dioena bermatzeko: “Jaurlaritzak, derrigorrezko ikastaldia bukatzerakoan ikasleek, aukera berdinetan, bi hizkuntza ofizialak benetan erabiltzeko adina menperatuko dituztela ziurtatzera bideratutako neurri guztiak hartuko ditu”).

Horrekin batera, ikaste-prozesuaren ikuspegi komunikatiboa indartu beharko da. “Lehenengo ikasi eta ondoren erabiltzen hasi” planteamenduaren ondoan, “ikasi bitartean erabili” edo “ikasteko erabili” ikuspegiak egokiagoa dirudi. Era horretan jabekuntza, batez ere eskolaren bitartez, hizkuntzaren erabilerarekin uztartuko genuke prozesuaren hasieratik, transmisioa erabat gauzatzeko erabilerari lekua egin behar baitzaio.

Euskara etorkinengana hurbiltzea modu ezin egokiagoa da hauen integrazio zabal eta aberasgarria ahalbidetzeko, eta euskara erabilera-eremu demografikoki dinamikoetara eramateko. Etorkizunean, etorkinen euskara gaitasunak zeresan handia izango du, oro har, hizkuntzaren osasunean, bai behintzat migrazio mugimenduek orain arte erakutsi duten hazkundeari eusten badiote.

### 5.1.3 Euskararen elikadura

Hizkuntza elikatu egin behar da, eroso eta erraz hitz egin eta erabiliko bada. Euskarazko Edukiekin eta horiek sortzen dituzten euskal eragileekin (hedabideak, argitaletxeak, ikastetxeak, zientzia-eragileak, eta abar) elikatu behar dugu. Euskal hiztunak euskarazko ereduak eta edukiak behar ditu bere hizkuntza jarduna aberasteko.

Euskararen erabilerak bi arlo nagusi ditu: **sorkuntza** eta **kontsumoa**. Beraz, euskarazko kalitatezko sorkuntza sustatu eta babestu behar dugu lehenengo, eta, horrekin batera, euskarazko kontsumoa indartu behar dugu ikuspegi askatzaile batetik euskal kulturaren industriarekiko, ekoizleekiko eta sortzaileekiko, hau da, politika publikoen babesak ukatu gabe, betiereko diru-laguntza sistemarekiko morrontza arriskuetatik urrundu behar da, ahal den neurrian, euskal kulturaren merkatua.

Kultura digitalaren garaian gaude, sareko eduki eta aplikazioetara bideratu behar ditugu gure ahaleginak, ahalik eta esparru gehienetan euskarazko eskaintza bermatu dadin. Garaia da, bestalde, hizkuntzaren zuzentasunaz gain beste bi irizpide hauek ere aintzakotzat hartzekoa: **komunikagarritasuna** eta **adierazkortasuna**. Ikuspegi horretatik,

garrantzizkoa da euskaraz komunikatzeko estandarrak malgutzea eta aberastea, batez ere hiztun berrien eta gazteen hizkeraren adierazkortasunaren mesedetan. Euskaldun berriari, gainera, lagundu egin behar zaio hizkuntza-ezagupenak sendotzen, euskal kulturaren aberastasunaz jabetzen eta bere harreman-sare euskalduna zabaltzen, horiek baitira adierazkortasuna elikatzen duten osagaiak.

## **5.2 Helburuak lortzeko zehar-lerroak**

Helburu estrategikotzat jo diren jabekuntza, erabilera eta elikaduraren ondoan badira haiek elikatzen dituzten beste jarduera mota batzuk ere, kontuan izan behar direnak. Horien artean daude euskararen aldeko motibazioa eta euskararen zabalkundea.

### **5.2.1 Euskararen aldeko motibazioa**

Euskararen aldeko motibazioak zerikusia izan dezake batetik ikaste-prozesuarekin, eta, bestetik, euskararen erabilerarekin, askotan motibazioa ezinbesteko baldintza izaten baita hizkuntza ikasi eta erabiltzeko.

Motibazioa ez da erraz lortzen den ezaugarria, baina, behar-beharrezkoa da euskararentzako erabilera-eremuak irabazi nahi badira.

### **5.2.2 Euskararen zabalkundea**

Berebiziko garrantzia du euskararen zabalkundeak hizkuntzaren irudian eta kultur ekoizpenen prestigioan. Euskara erakargarri bihurtu behar dugu, eta era egokian proiektatu. Euskara eta euskal kulturaren irudi irekia hedatu behar dira, horrek elebitasuna sendotzea ekarriko du, besteak beste euskaratik urrun sentitu izan diren herritarrak euskarara hurbiltzeko bideak erraztuko baitira.

## **6 Zierbenako udaleko Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren plan estrategikoa (2014 – 2017)**

---

Hasiera batean Euskara Biziberritzeko Plan Orokorra onartu zen. Hala ere, aintzat 2014tik 2017ra arteko Euskara Sustatzeko Ekintza Plana hartuko dugu, hori baita hurbilen duguna, bai epe aldetik baita burututako ekintzen aldetik ere.

Herri mailan, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana da, Udalaren gidaritzapean, herritarrek eta herriko entitate eta elkarteek adostuta/elkarlanean bideratzen den plana, zeinak neurri eta ekintza ugari biltzen dituen helburu zehatz baterako: euskararen erabilera areagotzeko, hain zuzen ere.

Zierbenan 2007ko abenduan udalak euskara sustatzeko konpromisoa hartu zuen. Hasiera batean Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) onartu zuen, eta plan hori izan da indarrean egon dena 2013ko abendura arte.

### **6.1 Euskara sustatzeko ibilbidearen hastapenak**

Aipatu dugun bezala, 2007ko abenduan hartu zuen Zierbenako Udalak euskara sustatzeko konpromisoa. Udalean lan hori bideratzeko kanpoko enpresa bat kontratatu eta lanari ekin zitzaion.

Urte hartan Euskara Batzordea sortu zen Euskara Teknikariak bultzatuta. Hasierako Euskara Batzorde hura Udaleko Euskara Teknikariak berak, alderdi politikoetako ordezkariak, herriko elkarteetako ordezkariak eta herriko euskaldun banakakoren batek osatu zuten. Azken horiek gutxi ziren eta gutxi iraun zuten Batzordean, arrazoi ezberdinengatik herritik kanpo joan baitziren. Taldea uztearen arrazoia ez zen interes falta izan, bestelako arrazoi pertsonalak baizik.



Euskararen aldeko lanetan hasteko, lehenik eta behin ikusi zuten herritarrengana iristea garrantzitsua zela, herritarrekin komunikatu behar zutela. Herri askotan ikastetxeak dira guraso askorengana iristeko bidea, eta horiek herritarren parte garrantzitsua dira, gurasoek etxean eta haien umeekin hartzen duten jarrera eta erabakiak eragina baitauka herriko hizkuntza erabileran, baina Zierbenan ez dago ikastetxerik eta beste bide batetik ailegatu behar zuten herritarrengana. Herri txikia denez etxez etxeko komunikazioa erabiltzea erabaki zuten, eta herritar guztiei ohar edo gutun bidez euskara sustatzeko ekintzen berri ematen hasi ziren.

Lehentasuna eman zioten euskara zekiten gazte eta haurrekin lan egiteari, adineko euskaldunak ez baitzen Zierbenan. Gazte eta haurrek zekiten baina erabiltzen ez zuten euskara sustatu indartu behar zen. Kolektibo hori kontzientziatu nahi zen, ikastetxetik kanpo ere euskara erabilgarri dela erakutsi nahi zitzaien. Eta horretarako ekintza batzuk prestatu ziren.

Hasierako urte hartan, datu bilketa egiten ere hasi ziren. Datuak biltzeko lehen aipatutako etxez-etxeko komunikazioa baliatu zuten, eta datu bilketaren emaitzak ikusita **bi ildo nagusi jorratzea erabaki zen**: Udal barneko euskararen ezagutza eta erabilera aztertu ziren alde batetik, eta herri mailako lana egin zen bestetik.

## 6.2 Udal barneko euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko plana

Euskara ofiziala da, gaztelaniarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Erkidegoko eremu euskaldunean. Eta horrela aitortzen dute EAEko Autonomia Estatutuaren 6. artikulua, eta Euskararen Erabilera Arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 3. artikulua. Halaber, Herritarren eskubideak eta herri-aginteen betebeharrak hizkuntzaren alorrean xedatzen duen 5. artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko dute hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz, eta, EAEko honako funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen zaizkie: Administrazioarekin edota EAEn kokatutako edozein erakunde edo entitaterekin harremanak euskaraz zein gaztelaniaz izateko eskubidea, ahoz nahiz idatziz. Horren arabera, hiztunak eskubidea du euskara balio eta eraginkortasun juridiko osoarekin erabili ahal izateko, eta inork ezingo dio

eskatu berak hautatutako hizkuntza ofiziala ez den besteren batean hitz egin dezan, eta eskubidea du, orobat, mintzakidea erakunde publikoa bada, berak hautatutako hizkuntza horretan erantzun diezaion. Zierbenan hori lortzeko asmotan hasi ziren lanean 2007an, behintzat ahaleginak egin behar ziren herritarraren hautuari egokiro erantzuteko, eta, hortaz, hizkuntza eskubideak Udalaren alor guztietan bermatzeko.

Udalarentzat lan egiten duten langile gehienak Lanpostu Zerrendatik kanpo dauden lanpostuetako langileak direnez, lanean hasi zirenean ez zitzairen eskatu zegokien Hizkuntza Eskakizuna egiaztatzeko, baina, udal barneko euskararen erabilera plana diseinatzerakoan erabaki zen langile guztiak (Lanpostu Zerrendakoak eta azpikontratatuak) kontuan hartzea, betiere lanpostuaren izaera kontuan hartuta (jendaurreko lanpostuak, gizarte izaerakoak, atal orokorrekoak eta atal berezietakoak). Egin beharreko lana handia zela kontuan hartuta, lehentasuna jendaurreko eta gizarte izaerakoei eman zitzairen.

Jendaurreko eta gizarte izaerakoak izanik, eta haien betebeharra herritarrak euskaraz hartzeko gai izatea izanik, langileek ondo hartu zuten erabakia. Ondo hartu zuten udalak horretan inbertitzea erabaki zuelako batez ere, lan orduetan euskara eskoletara joateko aukera eman baitzien, eta horrek haien aldetik ahalegin txikiagoa eskatzen zuelako lan orduz kanpo joanda baino. Borondate ona ikusi zen bi aldeen partetik, baina ez dugu ahaztu behar administrazioak gauzak oso erraz jarri zizkiela langileei. Lan horren ondorioz honako hauek izan ziren lortutako emaitzak:

| <b>HAMAR URTE HORIETAN HIZKUNTZA<br/>ESKAKIZUNAK EGIAZTATU DITUZTEN<br/>LANGILEEN ZERRENDA</b> | <b>Lortutako<br/>maila</b> |
|------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------|
| Aparejadorea                                                                                   | 3                          |
| Arkitektoa                                                                                     | 1 eta 2                    |
| Aparejadorea                                                                                   | 2                          |
| Aparejadorea                                                                                   | 2                          |

|                                       |            |
|---------------------------------------|------------|
| Administraria                         | 3          |
| Administrari laguntzailea             | 1 eta 2    |
| Ingurumen teknikaria                  | 1 eta 2    |
| Kultur Teknikaria                     | 1 eta 2    |
| Gizarte langilea                      | 1, 2 eta 3 |
| Arkitektoa                            | 1          |
| Kiroldegiko administrari laguntzailea | 2          |
| Kiroldegiko monitorea                 | 2          |
| Tokiko garapena                       | 3          |

Langileen euskalduntzean indar berezia jarri arren, bestelako ekimenetan ere lan egin beharra zegoen. Erabaki batzuk hartu ziren erabilera planarekin lotutakoak, besteak beste, paisaia linguistikoa ele bietan jartzea erabaki zen, udaleko agiriak ere ele bietan ateratzeko apustua egin zen, eta euskararen kalitateari garrantzia ematea erabaki zen. Lan horrekin, apurka-apurka euskararen presentzia areagotu zen, bai agirietan baita hormetako karteletan, ordura arteko paisaia batez ere erdalduna atzean utziz. Udalaren erabaki hori herritarrei ere zabaldu zitzaien, eta ordutik aurrera udalarekin hartu-emanetan euskara ere erabil zezaketela jakinarazi zitzaien. Hain zuzen ere, herritarrei informazio-gutun bat bidali zitzaien etxera, non Udaleko langileen euskararen ezagutza maila azaldu eta haien hizkuntza eskubideen berri ematen baitzitzaien. Harrezkero, Udalak jakinarazpen gehienak euskaraz eta gaztelaniaz bidaltzen dizkie herritarrei. Baina, oraindik ez da lortu euskara erabiltzea Udalaren hainbat arlotan (diruzaintzarekin loturiko kontuetan, esate baterako). Ahaleginak ahalegin, % 5 baino ez dira administrazioarekin harremanak euskaraz izatera animatzen diren herritarrak.

### 6.3 Zierbenako Udalak onetsitako plan estrategikoa

Zierbenako Plan estrategikoaren kokapen gisa aipatu behar da, 2012an EBPnren balorazio/ebaluazioa egin ondoren, eta ateratako emaitzen gainean egindako

hausnarketaren ondorioz, Eusko Jaurlaritzak plan berria diseinatu zuen, hain zuzen ere, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP).

2013ko abenduan, Zierbenako Udalak 2014-2017 urteetarako Euskara Sustatzeko Ekintza Planari dagokion Plan Estrategikoa onetsi zuen. Plana abenduan onartu zen, baina, Zierbenan Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoa zein izango zen erabaki baino lehen, aurrelan batzuk egin ziren. Hona hemen horietako batzuk:

Aurreko urteetan egindako lanen memoriak bildu ziren egitasmoa bera martxan jarri aurretik eta, Euskara Batzordearekin batera, prozesua nolakoa izango zen eta lan-egutegia adostu ziren.

Batzordearen lehenbiziko lana kronograma edo lan-egutegia adostea izan zen, egitasmoaren urrats bakoitza noiz egin zehazteko, aldez aurretik aurreko urteetako ekimenak baloratu/ebalatu ondoren.

Ondoren, komunikazio-plana diseinatu, eta komunikazio-ekintzak garatu ziren. Komunikazioa, gisa horretako prozesuetan, giltzarri izan ohi da, Administrazioa, herriko eragile eta herritarren arteko lankidetzeta eta parte-hartzearen kultura oso hedatua ez dagoen gure gizartean ez baita erraza jendea horrelako egitasmoetara erakartzea. Izan ere, herritarrei zuzendutako bilera irekietara pertsona bakarra baino ez zen agertu.

Komunikazio plana ondo bideratzeko honako euskarriak erabili ziren. Udalaren webgunean jarri zen informazio guztia, eta panel elektronikoen bidezko oharrak erabili ziren. Herriko eragileekin komunikatzeko posta elektronikoa eta telefonoa aukeratu ziren, eta azkenik, kartelak jarri ziren herriko gune estrategikoenetan.



ZIERBENAKO UDALAK HURRENGO LAU URTEETARAKO

**"EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA"**

AUKERATU ETA ONARTU BEHAR DU

**Ekintzak aukeratzeko interesa** baduzu Plan osoa Kultur Etxean dago, 946366007 telefonora deitu edo [www.zierbena.net](http://www.zierbena.net) web orrian begiratu.

Azaroaren 5ean **ekarpenak jasotzeko bilera irekia** egingo da Kultur Etxean 16:30ean.  
**IRAKURRI, AUKERATU ETA PARTE HARTU!** Zure iritzia jakin nahi dugul!



EL AYUNTAMIENTO DE ZIERBENA DEBE SELECCIONAR Y APROBAR EL

**"PLAN PARA EL DESARROLLO DEL EUSKERA"**

DE LOS PROXIMOS CUATRO AÑOS

Si tienes interés en **participar en la selección de las acciones** puedes descargarlo todo el Plan en la página web [www.zierbena.net](http://www.zierbena.net), pasar por la Kultur Etxea o llamar al 946366007.

El 5 de noviembre se hará una **reunión abierta en la Kultur Etxea a las 16:30** para recoger las aportaciones de cada persona. **¡LEE, SELECCIONA Y PARTICIPA!**  
(Esperamos tu opinión!)

Bilera horietarik ateratako ondorioak baliatu iren Plana diseinatzeko eta diseinu horretatik ateratako Plana martxan jarri zen. Hona hemen udalak onetsitako plana, eta egindako tailer eta kanpaina batzuetan erabilitako kartel eta materialen argazkiak:

#### **6.3.1.1 Familia bidezko transmisioa**

- 1.1 Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea (Toki erakundeak)
- 1.2 Transmisioaren inguruko informazioa jasotzea, egungo egoera ezagutu eta orain arte burututako ekimenen arrakasta neurtzeko
- 1.3 Familia barruan euskararen erabilera sustatzea (Toki erakundeak)

HELDERIK GAREKO  
PUBLIKATZE BIKAKIA  
ENVIÓ PUBLICITARIO  
SIN DIRECCION

JUGANDO EN EUSKERA  
DISFRUTANDO DEL EUSKERA!

www.zierbena.net

Zierbena

Logo of the Basque Government and other institutions.

#### EUSKARAZ JOLASTUZ EUSKARAZ GOZATUZ!

Zierbenako Udalak "Sortzen-ikasbatuaz" elkartearen laguntzaz, gurasoentzako euskarazko kantu eta jolas tailerra antolatu du, familia bidezko euskara transmisio kanpainaren barruan.

Ikastaroa euskaraz izango da baina jolas egokiak egingo dira guraso erdaldunek eta euskara maila baxua dutenek parte har dezaten.

#### GURASOENTZAKO JOLAS TAILERRAK

4-11 urte bitarteko umeak dituzten gurasoentzat.  
Apirilak 17 eta 24 Kultur Etxean.

#### IKASTAROA MUSU-TRUK IZANGO DA!

Izena eman: Kultur Etxean.  
T: 946 366 007 (kopurua mugatua)  
Epea: apirilaren 11ra arte



#### JUGANDO EN EUSKERA DISFRUTANDO DEL EUSKERA!

El Ayuntamiento de Zierbena con la colaboración de la asociación "Sortzen-ikasbatuaz" organiza un taller de juegos y canciones en euskera, dentro de la campaña de transmisión familiar del euskera.

El cursillo será en euskera, pero se harán juegos adecuados para padres y madres con nivel bajo en euskera o para los que no conocen la lengua.

#### TALLER DE JUEGOS PARA PADRES Y MADRES.

Padres y madres con niños/as de 4 hasta 11 años.  
17 y 24 de abril en la Kultur Etxea.

#### EL TALLER SERÁ GRATUITO!

Inscripción: Kultur Etxea.  
T: 946 366 007 (plazas limitadas)  
Plazo: hasta el 11 de abril

D2



### 6.3.1.2 Irakaskuntza

2.2 Euskarazko ikasketen eskaintza sendotzea

2.3 Ahozko hizkuntza-jarduna lantzea, bereziki eremu soziolinguistiko erdaldunagoetan

2.4 Euskararen erabilera soziala hezkuntza esparruan aztertu eta bultzatzea

2.6 Ikasle etorkinak euskarara hurbiltzeko programak diseinatu eta garatzea

# Berbalapiko

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>Jaun – andre estimatuok,</p> <p>Aurtengo ikasturtean, berriz ere <b>BERBALAPIKO EGITASMOA</b> martxan jarri nahi genuen.</p> <p><b>HELBURUA:</b></p> <p>Aspaldiko euskaldunak, <u>euskaldun</u> berriak zein ikasten ari direnak ahalik eta era naturalenean harremanetan jarri eta gustuko ekintzen bidez, euskaraz bizi daitezten ahalbidetzea.</p> | <p><u>Estimados vecinos y vecinas,</u></p> <p>Este nuevo curso, <u>queremos retomar la INICIATIVA BERBALAPIKO.</u></p> <p><b>OBJETIVO:</b></p> <p><u>Poner en contacto a los que ya saben euskera y a los que están aprendiendo,</u> para de la forma <u>más natural posible</u> y <u>por medio de aficiones comunes,</u> <u>posibilitar que vivan en euskera.</u></p> |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

### 6.3.1.3 Euskalduntze eta alfabetatzea

3.1 Orain arte lortutako emaitzen analisia egitea

3.2 Helduen euskalduntzearen mapa osatu eta baliabideak egokitu eta arrazionalizatzea


3.3 Finantzazio sistema egonkor bat ahalbidetuko duten aukerak landu eta abian jartzea

3.4 Elebitasun pasiboa helduen munduan ? eta gutxieneko helburutzat? areagotzea eta prestigiatzea



3.8. Gelaz kanpoko egitasmoak sustatzea, erabilera eta praktika uztartuko dituztenak (Toki erakundeak)

3.9 Etorkinak euskarara hurbiltzeko programak diseinatu eta garatzea (Toki erakundeak)



**ZIERBENA**  
ITSASOKO ZAPOREA  
SABOR A MAR

Udala | **Albisteak** | Herritarrek | Tramiteak | Baliabideak | Enpresak | Turismoa | Turismoa

Albisteak > Zierbenako Udalak euskararen alde lanean jarraitzen du

ALBISTEAK

EUSKARA

### Zierbenako Udalak euskararen alde lanean jarraitzen du

2012/06/26

"Euskara ikasi" kanpaina martxan jarri genuenetik, asko dira euskara ikasteko asmoa adierazi duten galpoak. Kanpaina horren bidez, aukera paregabea eskaintzen zaizue euskara ikasteko Zierbenako herritarrei, beste herri batera mugitu behar izanik gabe.

Aurtengo ikasturtean ere, kanpainari ekiteko asmoa du Udalak, herritarrei euskara ikasteko erraztasunak eskainiz, euskarak gure herrian toki irabazten jarrai dezan.

Urtero legez, maila desberdinak antolatzeko asmoa dago. Beraz, Zierbenako Udalak eskaintzen dituen ikastaro guztien arteko batean izena eman nahi baduzu, irailen matrikula egiteko aukera izango duzu.

Hala ere, zein maila dagokizun ez badakizu eta ikastaro horietan interesaturik egonez gero, ekainean eta uztailan mailaketa proba egiteko aukera izango duzu; baita informazio gehiago lortzeko aukera ere izango duzu, Euskara Zerbitzura, 946366007 telefono zenbakira deituz edo Kultur Etxera joanez.

Beste alde batetik, 2011-2012 ikasturtean euskaltzaren batean euskara ikasten aritu bazara, Udaltxan diru laguntza eskatu ahal izango duzu ekainaren 20tik uztailaren 20ra bitartean, biak barne. Horretarako, diru-laguntza orria eskatu behar izango duzu Kultur Etxean, Udaleko web orrian edo goian aipatutako Tf. Zk-n.

Baldintzak eta izena emate orria (PDF 88KB)



#### 6.3.1.4 Administrazioa

- 4.1 Administrazioan euskararen erabilera sustatu eta bermatzea (Toki erakundeak)
- 4.2 Euskara ere lan hizkuntza izateko neurriak hartzea (Toki erakundeak)
- 4.3 Langileen euskara-gaitasuna etengabe hobetzeko neurriak hartzea (Toki erakundeak)
- 4.4 Hizkuntzak erabiltzeko irizpideak finkatzea (Toki erakundeak)
- 4.5 Administrazioen arteko elkarlana areagotzea (Toki erakundeak)
- 4.6 Kanpoko komunikazioan euskararen erabilera gehitzea (Toki erakundeak)



#### 6.3.1.5 Zierbenari ez dagokio, gune euskaldunetan aplikatzekoa baita

#### 6.3.1.6 Arlo sozio-ekonomikoa

- 6.1 Euskara planak zabaltzeko babesa eta laguntza ematen jarraitzea eta dirulaguntzen sistema etengabe hobetzea (Toki erakundeak)
- 6.2 Orain arte garatu diren euskara planen emaitzen gaineko azterlana egitea, egoera ezagutu eta aurrera begirako proposamenak egiteko
- 6.3 Kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatzeko neurriak hartzea
- 6.4 Enpresen jardunean hizkuntza-irizpideak ezartzeko pausoak ematea
- 6.5 Arlo sozioekonomikoa eta hezkuntza sistema ongi uztartzea

6.6 Lan zerbitzuetan euskararen normalizazioa bultzatzea

6.7 Euskararen presentzia eta erabilera egiaztatzeko sistema hedatzea

6.8 Euskara enpresa munduan erabiltzeari prestigioa ematea



#### 6.3.1.7 Aisia eta kirola

7.1 Aisialdiko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzea (Toki erakundeak)

7.2 Begiraleen prestakuntza sendotzea

7.3 Aisialdiko ekimenetan erabiltzen den euskararen kalitatea zaintzea (Toki erakundeak)

7.4 Euskararen erabilera bultzatuko duten ekimenak antolatu eta baliabideak optimizatzea (Toki erakundeak)

7.5 Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak baliatzea, euskarak aisialdian izan dezakeen garapenari bultzada emateko

7.6 Gazteei zuzendutako modako ekimen guztietan euskara lehenestea

7.7 Etorkinen integrazio zabala eta aberasgarria ahalbidetzeko euskarazko aisialdi programa egokiak antolatzea (Toki erakundeak)

7.8 Kirolaren esparruko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera sendotzea (Toki erakundeak)

7.9 Euskal herritarrentzat kirolaren eremuan erakargarriak diren jarduera, ekintza eta zaletasunetan euskarazko eskaintza areagotzea eta horren eskaera sustatzea

7.10 Euskara kirol-munduan erabiltzeari prestigioa ematea, kalitatearekin eta erronka berriei aurre egiteko gaitasunarekin lotuz, nazioarte mailako balizko parte-hartze eta lehiari begira identifikazio osagaitzat erabiliz



### 6.3.1.8 Liburugintza

### 8.1 Irakurzaletasuna bultzatzea (Toki erakundeak)



#### 6.3.1.9 Kulturgintza

### 9.1 Euskarazko kulturaren kontsumoa bultzatzea (Toki erakundeak)

### 9.3 Euskarazko ekoizpenen zirkuituak antolatzea (Toki erakundeak)

#### 9.4 Euskarazko kultura produktuen zabalkunde egokia egitea (Toki erakundeak)







### 6.3.1.10 Publizitatea

10.1 Euskarazko publizitatearen sorkuntza sustatzea, horretarako estrategia original, bereizgarri eta berritzaileak bultzatuz (Toki erakundeak)

10.2 Herri-administrazioen euskarazko publizitatea hedabideetan argitaratzea (Toki erakundeak)



#### **6.3.1.11 Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea**

11.1 Euskara estandarra elikatu, aberastu eta sendotzea hizkuntzaren kalitatea bermatuz: komunikagarritasuna, adierazkortasuna, zuzentasuna eta egokitasuna lantzea (Toki erakundeak)

11.3 EAEko toponimia eguneratu, osatu, ofizializatu eta zabaltzea (Toki erakundeak)

11.4 Euskarazko terminologia elikatu, eguneratu eta zabaltzea

11.5 Adierazkortasuna zaindu eta indartzeko neurriak hartzea (Toki erakundeak)

11.6 Euskararen kalitatea zaintzea (Toki erakundeak)

#### **6.3.1.12 Hedabideak**

12.1 Erakundeen artean euskarazko hedabideei zuzendutako laguntzen irizpideak adostu eta finkatzea (Toki erakundeak)

12.7 Hedabideetako hizkuntzaren kalitatea bermatzea

#### **6.3.1.13 Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak**

13.1 Euskarazko baliabide teknologikoen gaineko informazioa bateratu eta zabaltzea (Toki erakundeak)

13.2 Interneten euskarazko edukiak sustatzea (Toki erakundeak) 6 / 9

13.3 Euskarazko tresnak sortu eta sustatzea

#### 6.3.1.14 Sentsibilizazioa eta motibazioa

## 14.2 Familia transmisioa (Toki erakundeak)

### 14.3 Irakaskuntza (Toki erakundeak)

#### 14.4 Euskalduntze-alfabetatzea (Toki erakundeak)

#### 14.5 Administrazioa (Toki erakundeak)

#### 14.6 Arlo sozioekonomikoa (Toki erakundeak)

#### 14.7 Aisia eta kirola (Toki erakundeak)

#### 14.8 Liburugintza (Toki erakundeak)

#### 14.9 Kulturgintza (Toki erakundeak)

14.10 Hedabideak eta publizitatea (Toki erakundeak)

#### 14.11 Teknologia berriak (Toki erakundeak)



#### **6.3.1.15 Barruko proiektzioa**

- 15.1 Euskararen irudi positiboa indartzea (Toki erakundeak)
- 15.2 Hizkuntza paisaia euskalduntzea gunen euskaldunenetan, hiriburuetan eta baita gunen jendetsuetan ere (Toki erakundeak)
- 15.3 Erakundeen arteko elkarlanean aritzea euskararen barruko proiektzioa bultzatzeko (Toki erakundeak)
- 15.4 Hizkuntzarekin zein kulturarekin zerikusia duten foroetan parte-hartzea (Toki erakundeak)
- 15.5 Euskara eta euskarazko kultura ezagutaraztera bideratutako ekitaldi eta ikuskizunak diseinatzea (Toki erakundeak)
- 15.6 Elebitasun pasiboa areagotzea eta prestigiatzea (Toki erakundeak)
- 15.7 Euskaraz sortutako eta gaztelaniaz sortutako kultura produktuen arteko loturak indartzea

#### **6.3.1.16 Kanpoko proiektzioa**

- 16.1 Euskararen irudi positiboa eta marka zabaltzea
- 16.6 Euskara eta euskarazko kultura ezagutaraztera bideratutako ekitaldi eta ikuskizunak diseinatzea
- 16.7 Kanpoko proiektzio handia duten ekimenetan hizkuntza irizpideak kontuan hartzea (Toki erakundeak)

#### **6.3.1.17 Bestelakoak**

- 17.1 ESEPen kokatzen ez diren bestelako gastu orokorrak, diru-laguntzak eta egitasmoak (Toki erakundeak)



## 7 Herri mailan egindakoaz hainbat aipamen

---

Euskara ez da berreskuratuko Zierbena bezalako herrietan, ezta eskoletan ere. Mikel Zalbide Elustondok bere artikulu eta eskoletan azaldutakoaren arabera, euskara berreskuratuko badugu gune euskaldunetako belaunez belauneko transmisiotik etorriko da, ez baitu bizirik iraungo belaunez belauneko transmisioa eteten bada. Horrekin ados egonik, guztiz ados egon ere, aipatu behar dugu herri erdaldunetan kokatuta gaudenok ere gure hazitxoak jarri behar dugula euskararen berreskuratze lanean, nahiz eta jakin badakigun guk egindakotik ez dela salbazioa etorriko, baina besterik ez bada ere motibazioan eta jarreretan eragin badezakegu, uste dugu ondo etorria izango dela. Hortaz, ezin gara eskuak gurutzatuta gelditu, arnaguneetatik salbazioa etorriko delako zain. Bada, hori kontuan hartuta, lanean jarraitzeko beharra dago, euskararen ezagutzak eta erabilerak (Zierbenan ezagutzak batez ere) gora egin dezan.

Behin hori argituta, Zierbenan egindako ahaleginean zentratuko gara. Garrantzia berezia eman izan zaio gurasoekin harreman zuzena izateari, hain zuzen ere, seme-alabak eskolatuak edo eskolaratzeko dituzten gurasoekin. Zierbenan ez dago ikastetxerik, baina irakaskuntza sisteman integratuta daude Zierbenako haurrak, beste herri batzuetara joaten baitira. Haur horien gurasoei komunikazio ekintza zehatzak bideratu zitzaizkien irakaskuntza eredu desberdinen helburuak azaltzeko: triptikoak eta informazio gutunak, hitzaldiak, eta oparitxoak, D ereduan matrikulatzearen aldeko lemak zeramatzatzenak, eta abar. Gaur egun gauzak aldatu egin dira. Duela 10 urte Zierbenan bazeuden herritarrak, beren haurrak D ereduan matrikulatzea burutik pasa ere ez zitzaizenak egiten. Baina urteetan Zierbenan, eta, oro har, EAEn egindako kanpaina desberdinei esker, gutxi dira gaur egun haurrak D ereduan matrikulatzen ez dituzten gurasoak. Hala ere, oraindik badaude haurrak Castro edo inguruko beste udalerri batzuetako ikastetxeetan gaztelaniaz ikasten dutenak. Uste dugu kontzientzia lantzen jarraitu behar dugula, hori izango baita etorkizun hurbilean Zierbenako haurrak euskaldunak izatera heltzeko bidea.

Jorratu beharreko beste alor garrantzitsutzat gurasoen Euskalduntze-Alfabetatzea hartu zen. Hori kontuan hartuta, euskara ikasteagatik diru-laguntzak emateko araudia sortu

zuten, eta gurasoei begirako motibazio kanpainak antolatu ziren. Orduan, ez zegoen euskaltegirik herrian, eta hori traba izan zitekeela ikusita, eta askok atzera egin zezaketela pentsatuta, herrian euskaltegi desplazatua jarri zen martxan.

Euskara ikasteagatik ematen ziren diru-laguntzak euskara ikastera animatzen zen edozein herritarrentzako laguntzak ziren. Berdin jaso zezaketen herriko euskaltegi desplazatuan ikasten zutenek zein udalerritik kanpoko beste edozein euskaltegitan ikasten zutenek ere.

Euskal kultura sustatzea ere helburu nagusi bilakatu zen, euskal kultura guztiz ezabatuta baitzegoen. Guztiz arrotz egiten zitzaien euskal kulturarekin zerikusia izan zezakeen edozein ekintza, eta apurka-apurka kultur ekintza ezberdinak antolatzen hasi ziren: Agate Deuna, San Juan Eguna eta Olentzero bezalako jardueren berri ematen zuten ekimenak hain zuzen ere. Horiez gain, kulturarekin lotuta umeekin euskal kantak eta jolasak lantzeko ekintzak, ipuin-kontalarien saioak, euskal jaietara joateko irteerak, euskal jaiak, esaera-zaharrez osatutako triptikoak eta abar egin izan dira.

Atal honetan aipatu behar dugu ostalari eta tabernariekin ere saiakera batzuk egin direla urte horietan, baina sektore honetan euskaldun gutxi dago, eta ez du erantzun on-onik izan. Hona hemen, tabernariekin egindako elkarrizketetatik ateratako datuak:

## Informazio orokorra (1/3) – oinarrizko datuak

- ✓ Zierbenan (Bizkaian) finkatutako **26 ostalaritza arloko establezimendu**.
- ✓ **Bezeroen %90 Euskal Herrikoa da.**
- ✓ Portzentajea: enpresen egungo plantila **90 langile inguruk osatzen dute.**
- ✓ Berauetako euskaldunen portzentaia ertaina gainetik zehaztu da eta gutxienez %7 euskalduna dela esan daiteke.

## Informazio orokorra (2/3) – enpresak, euskararen ezagutza eta erabilera

### Zierbenako ostalaritza arloko 26 enpresaren diagnosia

**87 pertsona**

**%93 erdalduna**

**60 pertsonak egiten  
dute jendaurreko lana**

**%95 erdalduna**

### Informazio orokorra (3/3) – enpresak, euskararen ezagutza eta erabilera

**Gaur egun, %100k egiten du gaztelaniaz bere lana**

**%30 bere negozioko errotulazioa euskaraz jartzearen alde**

**%15 bere negozioko publizitatea eta menua euskaraz jartzearen alde**

### Emaitza orokorrak (8/9)

- ✓ Orain arte **Zierbenako Udalak** euskara osatalaitza arloko enpresekin duen harremanetan euskara bultzatu asmoz **garatu dituen ekintzak** itzulpenak eta euskara eskolak izan dira.
- ✓ Azterketa honen eremu gehienetako hizkuntza nagusia gaztelania da gaur egun.

Ostalaritzan ez eze, enpresetan ere saiakerak egin izan dira, baina sektore horretan euskara sustatzeko lan egitea lan zaila da benetan. Euskara planak azaltzeko hurbilpena izan zen hasiera batean, inguruko enpresarik handienetara joan eta euskara planen nondik norakoak azaldu zitzaizkien, baina gehienek zera erantzun zuten: haien bezero nagusiak atzerriko enpresak direla, eta euskara, ikasita ere, ez luketela erabiltzeko aukerarik izango. Gauzak horrela, esan ziguten ingelera ikastea litzatekeela haien prioritate nagusia hizkuntzaren aldetik, eta ez euskara.

Halako erantzun asko izan arren, jakin ahal izan genuen Petronor eta beste enpresa handi batzuetako langileei euskara eskoletara joateagatik laguntzak ematen dizkietela. Hala ere, ez dira asko euskara eskoletara joatera animatzen diren langileak.

Hona hemen enpresetara bidalitako gutunetako baten eredua:



## Enpresentzako Euskara Planak Planes de Euskera para las empresas

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>Zierbenako Udalak euskararen erabilera sustatu eta bultzatzeko proiektuari, (EBPN) hasiera eman zion. Horretarako, 2007ko abenduaren 5ean egin zen osoko bilkuran 2008-2011 urteetarako Plan Estrategikoa onartu zuen.</p> <p>Planaren helburu nagusia, Zierbenan euskaraz bizi gura duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea da.</p> <p>Aipaturiko helburu nagusia lortze-aldera, hiru helburu estrategiko eta hainbat esparru jasotzen ditu plan estrategikoak:</p> | <p>El Ayuntamiento de Zierbena dio inicio al proyecto (PGUE) para promocionar e impulsar el uso del euskera. Para ello, en el pleno que se celebró el 5 de diciembre de 2007, aprobó el Plan Estratégico correspondiente a los años 2008-2011.</p> <p>El objetivo fundamental de dicho plan consiste en decidir y promover en Zierbena, las medidas de política lingüística necesarias para garantizar la posibilidad de vivir en euskera a quien así lo desee.</p> <p>Para lograr dicho objetivo se toman en cuenta tres objetivos estratégicos y varios ámbitos:</p> <p>➤ <b>La transmisión del euskera:</b></p> |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>➤ <b>Euskara transmititzea:</b><br/>Irakaskuntza; Euskalduntze-alfabetatzea; Familia bidezko jarraipena.</p> <p>➤ <b>Euskararen erabilera:</b><br/>Administrazioa; Teknologia berriak; <b>Lan mundua</b>; Aisia; Kirola; Erlijioa.</p> <p>➤ <b>Hizkuntzaren elikadura:</b><br/>Publizitatea; Komunikabideak; Kultura.</p> <p>Helburu hauek guztion artean lortu behar direla uste dugu. Beraz, Zierbenako enpresari zaren aldetik, batzar batera gonbidatzen zaitugu.</p> <p>Lan-munduan ere euskararen erabilera sustatzeko beharrezkoa den informazioa emate aldera, batzar honetan, oro har EBPnri eta konkretuki <b>euskara planei buruzko informazio zehatza eman gura dizugu.</b></p> <p>Hori dela eta, informazio zabalagoa jaso ahal izateko batzar batera gonbidatzen zaitugu. Jarraian mokadua egongo da.</p> | <p>Educación; Euskaldunización y alfabetización; Transmisión intergeneracional del euskera.</p> <p>➤ <b>Uso social del euskera:</b><br/>Administración; Nuevas tecnologías; <b>Ámbito laboral</b>; Ocio y tiempo libre; Deporte; Religión.</p> <p>▪ <b>La calidad de la lengua:</b><br/>Publicidad; Comunicación; Cultura</p> <p>Creemos que estos objetivos debemos conseguirlos entre todos y todas. Por lo tanto, teniendo en cuenta que eres empresario/a de Zierbena, te invitamos a una reunión.</p> <p>Con el objetivo de dar información sobre como promocionar el euskera, en esta reunión, <b>se os dará información general sobre PGUE y concreta sobre planes de euskera dirigidas a las empresas.</b></p> <p>Por todo ello, os invitamos a una reunión para ampliar la información. Seguidamente habrá lunch.</p> |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

**2008ko maiatzaren 14an / 14 de mayo de 2008**

**Zierbenako Kultur Etxea**

**12:00etan**

Etorriko zarela konfirmatzeko deitu, mesedez, telefono honetara: **946366007**

Para confirmar su asistencia llame al

**Zierbenako Udala**

Zierbenan, 2008ko maiatzaren 6an

## 7.1 Orain arte egindakoaren balorazioa eta ondorioak

Zierbenako Udalak lehenengo EBPNren lehenengo Plan Estrategikoa onartu zuenetik ia 10 urte pasa dira, eta urte horietan egindako lanaren balorazio orokorrean badira nabarmentzeko hainbat kontu.

EBPNk hasieran eta ESEPk gero udalerriari egin dizkioten ekarpenen artean honako hauek aipagarriak direla deritzogu:

- Prozedura eta metodologia aldetik biek lan egiteko modu egokiago bat erakutsi dute, ordenatua eta jarraitua, alegia.
- Lana zentzuz eta helburu jakin batzuen arabera egiteko bidea hartzeko aukera baliatu dute. Plan Estrategikoen bidez Euskara Zerbitzuaren lana urteetan zein izango den zehaztuta dago, Plan Estrategikoak adierazten digulako. Era berean, urtez urteko lana ere aldeztu aurretik pentsatua dago, Kudeaketa Planaren bitartez. Honek antolaketa aldetik onura ugari ekartzen ditu: aurrekontuak egitea errazagoa da, hilerok zer egin behar den edo zer egin daitekeen zehazteko aukera ematen du...
- Egindako lana metodologia baten arabera ebaluatzen da: honek garrantzi handia du zertan egin den aurrera eta zertan ez ikusteko, eta, bide batez, etorkizuneko lana definitzeko (aurrerantzean landu beharreko alorrak aukeratzen laguntzen du, baita emaitza onak eman ez dituzten esparruak baztertzen ere).
- Udaleko hizkuntza politika aztertzeko eta bideratzeko tresna egokia da.
- Udal guztiok plan nagusi baten baitan lan egitea onuragarria da, udal guztiok sistema eta metodo berarekin lan egitea lagungarria izan baitaiteke elkarren berri izateko, esperientziak elkarren artean trukatzeko, kanpainak elkarrekin antolatzeke...

Hobetu beharreko arloen artean honako hauek nabarmenduko genituzke:

- Anbizio handiko plan orokorrak dira EBPN eta ESEP, eta askotan esparru eta neurri asko aukeratzeko arriskua dago, Zierbena bezalako udalerri batean guztiak baitira lana behar duten esparruak. Horrek arazoak ekarri izan ditu plana garatzeko orduan, udalerriak dituen baliabideak, pertsonal zein ekonomikoak, ez baitira nahikoa izan.

- Baliabide faltaren ondorioz, askotan Euskara Zerbitzua modu sistematikoan lan egitera behartuta egon da. Eta askotan, inertziaz, aurreko urteetako ekintza bertsuak egin izan ditu.
- Aholku Batzordearen funtzionamendua ez da behar bezalakoa izan, ez baitu lortu herriaren inplikazio handiegirik. Eta, udalerrian ikastetxerik, edota elkarte euskaldunik ez egoteak askotan lana zaildu egin du.

Zierbenan egindako ekintzei buruzko balorazioari dagokionean, 2007tik hona ekintza ugari egin dira, eta, oro har, egindako lana positibotzat jotzen da. Egia da euskararen erabileran ez dela horrenbeste igarri, baina bai herritarren jarrera eta motibazioan. Ezer ez egotetik euskaltegiko taldeak osatzea lortu zen, hasierako urteetan euskararen aldeko ekimenetan jendeak gogotsu parte-hartzea, gero eta guraso gehiagok hautatzea beren seme-alaben ikasketetarako D eredua... Hala ere, ekintzetako parte-hartzeari erreparatzen badiogu, ikus dezakegu ekintza batzuetan beste batzuetan baino jende gehiagok hartu duela parte, hori azaltzeko arrazoi garbirik edo objektiborik aurkitu ez dugun arren. Batzuetan eguzkia, besteetan euria, batek daki zein izan den parte-hartzean gorabehera horiek izatearen arrazoia. Seguru, ekintzaren baten zabaltze lanean egin dela kale, beste ekintza batzuk ez ziren herrirako aproposak izango edo gaizki planteatuko ziren, baina, oro har, egokiak izan direla uste da.

2007an, euskara sustatzeko ibilbidearen hastapenetan ekintza guztiek zeukaten harrera ona, oso ona. Urte batzuetan gorako joera izan zuten. Hain zuzen ere:

- Haurrentzat antolatutako ekintzek aretoa (ez da oso handia eta kontuan hartu behar da haur-kopurua) bete egiten zuten.
- Gaztetxoentzat antolatutako kirol edo kultur ekimenetarako ezarritako gehienezko parte-hartzaile kopurua bete egiten zen.
- Helduentzako antolatutako tailerrak (hauek ia beti ele bietan antolatu izan dira), arrakastatsuak izan dira.
- Euskaltegian jendea gustura zebilen, taldeak eratzen ziren, 2009-2010 ikasturtean maila desberdinetako 6 talde osatu ziren.



Ekimen horien emaitzak laburbilduz, esan daiteke lortutako emaitzak positiboak izan direla. Izan ere, ekimen edota tailer guztietan gutxieneko eta gehieneko parte-hartzaile kopurua ezarri izan da, eta urte horietan guztietan behin besterik ez da tailer bat bertan behera utzi. Bertan behera utzi zen tailerra, “betiko jolasak familian” izan zen, gutxienez 8 ama/aita seme/alabak hartu behar zuten parte tailerrak aurrera egin zezan, eta 4k baino ez zuten eman izena.

Alde negatibo bezala esan behar da, desplazatutako euskaltegia itxi egin zela. Ez da talderik eratu azken bi urteetan, baina horren arrazoia ez da soilik jenderik eza izan, diru partidak ere asko murriztu baitira, eta horrek ez du batere lagundu. Izan ere, duela bi/hiru ikasturtera arte, herrian bertan sortzen ziren taldeen kostea Udalak bere gain hartzen zuen, eta horrez gain, herritik kanpo dagoen edozein euskaltegitan euskara ikasten zuten herritarrei % 100 ordaintzen zitzairen. Diru partida gutxitu denez, euskaltegi desplazatuaren zerbitzua bertan behera utzi behar izan da, eta ondorioz, herritik kanpoko beste euskaltegietara joateko arazoak, nagia eta abar duten pertsona horiek euskara ikasteari uzteko argudio paregabea aurkitu dute batetik, eta bestetik, euskara ikasteko diru-laguntza araudia aldatu egin da, eta lehen 1.000 eurora arteko laguntza bazegoen, orain 500 eurora arteko laguntza ematen da, baldintza batzuk betetzearen truke. Hortaz, esan dezakegu administrazioaren ekarpena ere aldatu egin dela.

Kulturaren alorrean, Zierbenako herritarrak urruti ikusten ditugu euskara eta euskal kulturatik. *Agate Deuna* bezalako egunak arrotz egiten zaizkie, euskal kultura eta kirolarekin lotutako pertsonai ospetsuak ez dituzte ezagutzen, eta, azkenaldian, gero eta arrakasta handiagoa dute kultura espainolarekin lotutako ekintzek. Udalerrria oso txikia izanik, herriko jaiak ez dira oso jendetsuak izaten, eta, azken urteotan, ikusi dugu euskal kulturarekin erlazionatutako artistek espainiar kulturarekin erlazionatutakoek baino jende gutxiago erakarri dutela. Ziurrenik, oraindik orain, ezezagun egiten zaizkielako euskal artista asko.

Plana martxan jarri zenean lortu zen herritar batzuk motibatzea. Euskararen erabileran hobekuntzarik nabaritu ez bazen ere, euskaraz antolatutako ekintzetan izandako parte-hartze kopurua kontuan hartuta, jendearen jarreraren eragina izan dute egindako ekintzek.

Alde horretatik uste dugu egindako lanak merezi izan duela, ez da alferrikako lana izan. Izan ere, lehen euskararen kontrako sentimendua zuten herritar askoren jarrera aldaketan islatu da, eta, are gehiago, horietako batzuk euskaltegian euskara ikastera ere animatu izan dira. Hala ere, errealitatea hor daukagu, eta motibaziorik eza erabat nabarmena da oraindik orain.

Zierbenan urte hauetan guztietan ez da lortu euskararen erabileran apenas eragitea, ez da erraza hain erdalduna den gune batean erabileran eragitea. Zierbenako herritarren euskararen ezagutza mailaren arabera espero daitekeen erabilerari dagokion kalkulua egin daiteke. Izan ere, ezagutza hainbestekoa izanik (Zierbenaren kasuan EUSTATen 2011ko datuak kontuan hartuta % 55,68 euskaldun edo ia euskalduna da, 1.426 biztanletik 794 euskaldunak edo ia euskaldunak dira, eta 632 erdaldunak) bikotekako, hirukotekako, eta laukotekako elkarriketetan euskaraz hitz egitea estatistikoki zenbatean den posible aztertu dugu.

Suposa dezagun Zierbenan euskaldunak euskaldunekin elkartzen direnean BETI euskaraz mintzatzen direla; egoera baikorrena beraz, hau da, elebidunak euskararekiko erabat leialak garenez, elebidun batekin topatzean beti euskaraz aritzen gara.

Baina, Zierbena bezalako aldebakarreko elebitasun egoera handia dagoen herri batean, oso zaila da ezagutza eta erabilera bat etortzea. Hori aztertzeko, adibide bat jarriko dugu: Eman dezagun laukote batean (A, B, D, C) hiru elebidun ditugula: A, B, D. Demagun elebidun horiek euskararekiko erabat leialak direla, alegia, haien mintzakideak euskaraz baldin badaki beti euskaraz aritzen direla. A B C D laukotean euskararen ezagutza % 75 da, lautik hiru baitira euskaraz hitz egiteko gai. Azter dezagun jarraian euskararen erabilera. Horretarako zoriz gerta daitezkeen elkarriketa posibleak kalkulatu ditugu.

- Bikoteka, 6 talde ditugu: AB, AD, AC, BD, BC, eta DC. Horietatik C ez dagoenean hitz egingo da euskaraz, hiru kasutan beraz (AB, AD, eta BD), beste bikoteetan erdaldun elebakarra baitago.

- Hirukoteka, 4 talde ditugu: ABD, ABC, ADC, eta BDC. Horietatik elkarrizketa bakarrean hitz egingo da euskaraz (ABD), gainontzeko hiruretan gaztelaniaz mintzatuko dira.
- Laukoteka talde bakarra dugu. Eta, noski, C erdaldun elebakarra bertan dagoenez, erdaraz arituko dira.

Baina, tamalez jakin badakigu praktikan:

- Euskaldunon leialtasuna ez dela % 100ekoa izaten: euskara dakitenen arteko elkarrizketak ez direla kasu guztietan euskaraz izaten. Izan ere, Zierbena bezalako udalerri erdaldunetan, askotan euskaldunek ere ez dute euskara erabiltzeko ohiturarik.
- Herritarrek ez dutela edonorekin harremanik izaten (harreman gehiago dugu ingurukoekin eta antzeko adina dutenekin, baina herriko zenbaitekin ez dugu inoiz harremanik izaten). Hau da, askotan euskaldunak euskaldunekin harremanak izaten dituztela, hortaz, euskaldun berri batek inguruan euskaldunik ez badu, zaila izango du euskara erabili ahal izatea.

Hori guztia kontuan hartuta, kontzientziario lana egiten jarraitzea ezinbestekotzat jotzen dugu, euskara dakiten herritar horiek beren artean euskara erabil dezaten. Eta, lan horretan ekiteko, Euskara Batzordea dago martxan. Batzordearen partaide kopuruak behera egin du baina oraindik hor dabil, eta desagertu baino lehen berrindartzea litzateke egokiena. Partaideen beherakadaren arrazoiak ezberdinak izan dira. Hasieran taldean egon ziren herritar batzuk beste toki batzuetara joan dira bizitzera, herriko dantza taldeko ordezkariak ere herritik alde egin zuen, eta egon izan diren beste kide batzuen egoera pertsonala aldatu egin dela jakinarazi zuten. Berrindartzeko ahalegina egin aurretik, autokritika egin behar dugu, desanimuaren arrazoietakoa bat gaizki bideratu eta elikatu izanaren ondorio izan baitaiteke. Esan bezala, gaur egun martxan dago. Bi herritar, alderdi bakoitzeko ordezkari bana, eta udaleko Euskara Teknikaria ari dira, baina bestelako eragileen parte-hartzea lortu behar dugu. Horretarako, herriko eragileei aurkeztuko dizkiegu hemendik aurrerako asmoak zein diren, eta saiatuko gara konbentzitzen gurekin batera lan egin dezaten, horrela batzorde sendoago bat izanda lan egitea errazagoa izango da.

Lan esparruan eta ostalaritza-merkataritza esparruetan ere egin dira ahaleginak, baina gorago ikusi ahal izan dugun bezala, ez dugu arrakastarik izan. Agian, planteamenduan okertu ginen, enpresa guztiak batera hartu eta haien planak egiten saiatzea larregizkoa izan zen, eta ez zuen erantzun onik izan. Aurrerantzean, aukeraketa estrategiakoa egitea izango da onena, saiatu behar dugu hasteko gutxi batzuk euskararen alde jartzen, gure planean lagun dezaten, haien plan propioa izan gabe.

Zierbenako kirol eta kultur elkarteekin ere ez da gauza askorik lortu, baina uste dugu aurrerantzean elkarte horiekin lanean jarraitu behar dela, urteak aurrera joan ahala, jende berria, gaztea, sartzen baita elkarteetan.

## **7.2 Balorazio horiek kontuan hartuta, Indarguneak eta ahuleziak**

Reflect Ekintza ikuspegi metodologikoa ikuspegi dinamikoa da eta era guztietako lanak egiteko aplikatu ohi da; adibidez: hizkuntza gutxituen normalizazio prozesuetan, ikuskaritza soziala egiteko, aurrekontuak aztertzeke, giza eskubideak lantzeko, emakumeen eskubideak lantzeko, etxeko biolentziaren aurka, udal planifikazioa egiteko, azterketa politikoa, osasuna eta abar.

Zierbenan, beren-beregi metodologia hau erabili ez bada ere, esan daiteke indarguneen eta ahulezien zerrenda egin ahal izateko, antzeko metodologia erabili dela. Hau da, Metodologia honen abiapuntua pertsonak dira, ekintza eragiten, bideratzen edota egiten duten pertsonak, hain zuzen ere. Hortik abiatuta, Zierbenako errealitatea “irakurtzeko aukera” izan dugu.

Zeintzuk dira Reflect Ekintza metodologiaren ezaugarri nagusiak:

- Parte-hartzea eragiten du: Pertsonak zerbait bizi dutenean, beraiena egiten dute (“jabetzen dira”) eta horrela inplikatu egiten dira.
- Bibentziala da: Norberaren bizipenetan oinarrituta aztertzen da egoera.

- Talde-izaera sendotzen du: Horrela, taldea bera prozesuaren eragile izatea lortzen da. Pertsona bakoitzak bere espektatibak ditu eta garrantzitsua da taldearen dinamikan kontuan hartzea.
- Kalitatezko parte-hartzea lortzeko lan-eskema mailakatua da: Banakako lanetik hasita, talde txikitan eztabaidatu eta adosten da, eta, bukatzeko, denen artean berriz ere eztabaidatu eta adosten da.
- Bisuala da. Egoerak bisualki planteatzen dira errazago aztertu ahal izateko.
- Aldaketa eragiten du. Ekintzarekiko identifikazioak aurrera egitea dakar; taldeak berak proposatutakoa bultzatzen baita.

Zierbenan euskararen dimentsioan jende gutxi murgiltzen dela ikusita, udalerriaren benetako argazkia aztertzeke aukera izan dugu. Lan hori burutzeko Euskara Batzordea eta norbanako batzuen inplikazio handia izan dugu. Oraingoz ez dugu lortu herriko elkarte eta eragileak inplikatzeko, baina aurrerantzean saiatuko gara horiek ere inplikatzeko, nahiz eta elkarteetan oso euskaldun gutxi egon. Honela dago gaur egun: areto futbolean presidentea baino ez da euskalduna, esku pilotan bizpahiru lagun baino ez, surf elkarteetan haur eta nerabeak bai, baina zuzendaritzakoak ez, arraun taldean arraunlariak bai, eta zuzendaritzakoak ez, baina arraunlariak ez dira herrian bizi. Arestian aipatu bezala, Euskara Batzordean herriko elkarte eta eragileak inplikatzeko lortu behar dugu lehenik eta behin, eta gaur gaurkoz ezin dugu horiekin kontatu. Ezin dugu kontatu Euskara Batzordearen parte izateko, baina herrian ekintzaren bat antolatzeke laguntza eskatzen diegunean (tailerrak, haien materiala erabiltzeko aukera, eta abar) beti laguntzen dute eta haien jarrera ona da, beraz, ez da ezinezkoa Batzorderako kideren bat animatzea.

Lan hori egiteko ESEP osatzen duten esparru eta neurri guztiak arloz arlo aztertzea izan da aukeratutako bidea.

Hona hemen Zierbenak eman digun argazkia:

- ✓ **Familia bidezko transmisioa**
- ✓ **Irakaskuntza**
- ✓ **Euskalduntze eta alfabetatzea**

- ✓ Administrazioa
- ✓ Arlo sozioekonomikoa
- ✓ Aisia eta kirola
- ✓ Liburugintza
- ✓ Kulturgintza
- ✓ Publizitatea
- ✓ Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea
- ✓ Informazioa eta komunikazioaren teknologia

Familia bidezko transmisioa:

| AHULEZIAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           | INDARGUNEAK                                                                                                                                                                                                                                                                          |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>Euskara hizkuntza akademikoa baino ez izatea</li> <li>Guraso erdaldunek jarrera proaktiborik ez izatea</li> <li>Nerabezaroan euskaldunak ere gaztelaniaz aritzea</li> <li>Euskara mundu modernoarekin ez identifikatzea</li> <li>Guraso mistoen/euskaldunen etxeetako hizkuntza gaztelania izatea</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>Euskaldunek euskarari atxikimendua handia izatea</li> <li>D ereduan ume-kopuru handia matrikulatzea</li> <li>Atzerritarrek gogo handia izatea seme-alabek euskara ikas dezaten. Integraziorako elementu garrantzitsu gisa ikustea.</li> </ul> |

Irakaskuntza:

| AHULEZIAK                                                                                                                 | INDARGUNEAK                                                                                                                               |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>Hezkuntza arautuak euskara salbatuko duen uste faltsua hedatuta egotea.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>D ereduak prestigioa handia izatea</li> <li>D ereduak kalitatezko hezkuntzarekin lotzea</li> </ul> |

- |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |                                                                                                                                                               |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskara oso akademizatuta egotea</li> <li>• Ikastetxe barruan, eremu informaletan (patioan, ikasleen arteko elkarrizketetan,...) gaztelaniak hartzen duen tokia oso handia izatea</li> <li>• Zierbenan ikastetxerik ez egotea, haiekin harreman zuzena izateko.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• D ereduko matrikulazio-kopurua handia izatea</li> <li>• Eskola euskara sustatzeko esparru aproposa izatea</li> </ul> |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

Euskalduntze eta alfabetatzea:

| AHULEZIAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            | INDARGUNEAK                                                                                                                                                                                                                                                        |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskara ikastea zaila den ustea hedatuta egotea</li> <li>• Zierbenan euskaltegirik ez egotea</li> <li>• Euskarari balio erantsirik ez aitortzea. Ondorioz, euskara ikasteko aukera egitea zaildu egiten da.</li> <li>• Herriko sektore handi batek euskararekin inolako harremanik ez izatea</li> <li>• Etorkinak euskarara eta euskal kulturara hurbiltzeko tresnarik ez izatea</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskualdeko herrietan euskara ikasteko aukera asko egotea. Tipologia desberdinetako ikastaroak eskura izatea (iraupenez, hartzaileei dagokienez,...)</li> <li>• Euskara ikasteko laguntza ekonomikoa eskaintzea</li> </ul> |

Administrazioa:

| AHULEZIAK                                                                             | INDARGUNEAK                                                                       |
|---------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskara erabiltzeko ohitura falta</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Langileei dagozkien perfilak,</li> </ul> |

|                                                                                                                                                       |                                                                                                                                                                                                   |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>Herritarrek euskaraz ezer ez eskatzea</li> <li>Harreran dauden langile batzuk euskaldunak ez izatea</li> </ul> | <p>apurka-apurka lortzen joatea</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Euskararekiko jarrera aldatzen joatea</li> <li>Langileak euskalduntzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea</li> </ul> |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

Arlo sozioekonomikoa:

| AHULEZIAK                                                                                                                                                                                                                                                                    | INDARGUNEAK                         |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>Lan-mundua, oro har, oso erdaldunduta dagoen esparrua izatea</li> <li>Lan-munduan euskara txertatzeko sustapen-lan gutxi egin izana</li> <li>Euskara negozio-hizkuntza gisa ez ikustea</li> <li>Euskaldun oso gutxi egotea</li> </ul> | <p>EZ DUGU INDARGUNERIK AURKITU</p> |

Aisia eta kirola:

| AHULEZIAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     | INDARGUNEAK                                                                                                                                                                                                                                                                        |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>Haurren ekitaldiak euskaraz izan arren, gaztelaniak presentzia handia izatea, inguruak eraginda</li> <li>Helduen arteko harremanak aisialdi-guneetan, batez ere, gaztelaniaz izatea (tabernetan,...)</li> <li>Kirol bakoitzeko arduradunaren sentsibilizazioaren araberakoa</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>Udalak egiten dituen eskaintzetan komunikazioak (kartelak, etab.) ele bietan egitea</li> <li>Kirol-instalazioetako paisaia linguistiko gehiena, gutxienez, ele bietan egotea</li> <li>Zierbenako arraunlariak euskaldunak izatea</li> </ul> |



izatea euskararen presentzia

Liburugintza:

| AHULEZIAK                                                                                         | INDARGUNEAK                                                                                                                                               |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <ul style="list-style-type: none"><li>Euskarazko liburuak oso jende gutxik kontsumitzea</li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>Liburutegian euskarazko eskaintza gero eta handiagoa izatea</li><li>Euskarazko eskaintza handitzen joatea</li></ul> |

Kulturgintza:

| AHULEZIAK                                                                                                                                                                                                                                                                    | INDARGUNEAK                                                                                                                                     |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <ul style="list-style-type: none"><li>Euskarazko ekitaldien arrakasta, gaztelaniazkoarekin konparatuta, oso txikia izatea</li><li>Erdara huts-hutsean izaten diren ekitaldi asko izatea, euskarari espazio txiki bat ere eskaini gabe (komunikazioan, agurrean...)</li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>Gero eta ekintza gehiago antolatzen direla euskaraz</li><li>Eskaintza gero eta handiagoa izatea</li></ul> |

Publizitatea:

| AHULEZIAK                                                                                                                                                                                               | INDARGUNEAK                                                                                                                           |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <ul style="list-style-type: none"><li>Euskarazko eskaintza-kopurua txikia izatea</li><li>Euskara hutsezko eskaintzak jarraipen handirik ez izatea (Berria,...).</li><li>Eskualdean euskarazko</li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>Komunikabideek gauzak bultzatzeko duten gaitasuna euskararen alde erabili ahal izatea</li></ul> |

komunikabiderik ez izatea

Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea:

| AHULEZIAK                                                                                             | INDARGUNEAK                                                                                                      |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <ul style="list-style-type: none"><li>Askotan euskararen kalitateari garrantzirik ez ematea</li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>Gero eta bitarteko gehiago izatea euskararen kalitatea zaintzeko</li></ul> |

Informazioa eta komunikazioaren teknologia:

| AHULEZIAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 | INDARGUNEAK                                                                                                                                                                                                                                                    |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <ul style="list-style-type: none"><li>Ordenagailuak, sakelakoak, softwarea euskaraz erabiltzeko ohiturarik ez izatea</li><li>Dagoen eskaintzaren berri ez izatea, eta premiarik ere ez nabaritzea</li><li>Teknologia berriak modernotasunarekin lotzen dira eta euskarak horretan dituen aukerak ez ezagutzea eta ez erabiltzea</li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>Euskaraz erabili daitezkeen baliabideak gero eta gehiago izatea (sare sozialak, mugikorrak, ordenagailuak,...)</li><li>Gazteek teknologia berriak ondo erabiltzea eta euskaraz gehien dakien kolektiboa izatea</li></ul> |

Taula horiek ikusita laster ohartuko gara funtsezko arloetan Zierbenan indarguneak ez direla hain sendoak, eta ahulezi handiak ditugula.

Nabarmentzeko arloak ditugu transmisioarekin eta irakaskuntzarekin lotutakoak, esate baterako. Familia bidezko transmisiorik ez dago Zierbenan, eta apenas ezagutzen da adineko euskaldunik, baina indargune moduan aipa dezakegu umeak D ereduan

eskolatzen dituztela gero eta guraso gehiagok. Ume horiek etorkizuneko guraso euskaldunak izango dira lanari ekiten badiogu. Baina badu alde iluna, datozen urteetan landu beharko genukeena onik atera nahi badugu behintzat. Umeek eskolan euskara erabiltzen dute, baina eskolarekin lotzen dute, handik ateratzean, bestelako ekintzetan eta patioan, gaztelania nagusi izanik. Nerabeek ere gaztelania erabiltzen dute, nahiz eta ikasketak euskaraz egiten dituzten. Esan beharra dago, zoritxarrez, arazo hau ez dela Zierbenari soilik dagokion arazoa, Euskal Herri osoari dagokiona baizik, eta guztion artean pentsatu beharko ditugu arlo honetan eragiteko bideak eta baliabideak.

Aurreko paragrafoan aipatutakoarekin lotuta, eta faktore ezkor hori iraultzeko indargune bat aipatzearren, azken urteetan euskarazko aisialdi eta kultur ekintzen programa handituz joan da, eta hori positiboa da ume eta gazteak dauden ekintzetan behintzat indartuz joan daitekeelako. Hala ere, oraindik gaztelaniazko ekintza batzuk egiten dira, eta datozen urteetan kopuru hori jaisteko ahalegina egin beharko litzateke.

Administrazioko langileen artean ere euskalduntzeko neurri zehatzak hartu dira. Gutxi dira gaur eguneko herritar euskaldunak, baina pixkanaka-pixkanaka euskaldundu behar dugu administrazioa ere, gazteak gorantz doazen neurrian administrazioan ere euskaraz egiteko aukera izan dezaten.

## 8 2017 urtean ekintza planean jasotako esparruak, neurriak eta ekintzak

2017 urtean gaudela kontuan hartuta, eta Plan Estrategikoaren azken urtea denez, aurten landu eta garatuko diren esparru eta neurriak jaso ditugu. Ekintza planean jasotako helburuak lortzeko esparru eta neurri bakoitzean zein ekintza zehatz gauzatuko den ere zehazten dugu jarraian.

|                 |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |
|-----------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>ESPARRUA</b> | 1. Familia bidezko transmisioa                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
| <b>NEURRIA</b>  | 1.1 Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |
| <b>EKINTZAK</b> | 1.1.1 Herritarren artean euskara erabiltzearen aldeko jarrera lantzea<br>1.1.2 Eleaniztasunaren onurak azaltzea<br>1.1.4. Gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako produktuak ezagutarazi eta eskura jartzea<br>1.1.5. Gurasogaien hizkuntza-ohituren aldaketarako erraztasunak ematea<br>1.1.7. Bikote euskaldunen zein mistoen kasuan, seme-alabekiko hizkuntza jokabideak lantzea |
| <b>NEURRIA</b>  | 1.3. Familia barruan euskararen erabilera sustatzea                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
| <b>EKINTZAK</b> | 1.3.1. Eskolatik kanpo zein eskolan bertan ere gurasoek eta umeek euskara erabiltzeko guneak sortzea eta elikatzea                                                                                                                                                                                                                                                                         |

|                 |                                                                                                                                                                                          |
|-----------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>ESPARRUA</b> | 2. Irakaskuntza                                                                                                                                                                          |
| <b>NEURRIA</b>  | 2.6. Ikasle etorkinak euskarara hurbiltzeko programak diseinatu eta garatzea                                                                                                             |
| <b>EKINTZAK</b> | 2.6.1. Nerabeengan arreta berezia jartzea eta haientzako programa bereziak garatzea<br>2.6.2. Gurasoei informazioa eta laguntza emateko programak garatzea, sentsibilizazioaren mesedean |

|                 |                                                                                      |
|-----------------|--------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>ESPARRUA</b> | 3. Euskalduntze eta alfabetatzea                                                     |
| <b>NEURRIA</b>  | 3.8. Gelaz kanpoko egitasmoak sustatzea, erabilera eta praktika uztartuko dituztenak |
| <b>EKINTZAK</b> | 3.8.2. Mintzapraktika egitasmoak (Mintzalagun, Berbalagun, Gurasolagun) zabaltzea    |

|                 |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
|-----------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>ESPARRUA</b> | 4. Administrazioa                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
| <b>NEURRIA</b>  | 4.1. Administrazioan euskararen erabilera sustatu eta bermatzea                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
| <b>EKINTZAK</b> | <p>4.1.3. Herritarrek administrazioekin dituzten harreman ahozkoetan eta idatzizkoetan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukera bermatzea</p> <p>4.1.4. Hizkuntza paisaian (errotulazioa eta noizbehinkako oharra) euskararen erabilera bermatzea: erakunde barruko hizkuntza-paisaian euskararen presentzia gehitzea y administrazioaren seinalaztapen publikoan eta noizbehinkako oharretan euskararen erabilera handitzea, komunikagarritasuna zainduz</p> <p>4.1.6. Erakundearen ahozko kanpo zein barne-harremanetan euskararen erabilera gehitzeko neurriak hartzea, betiere herritarren hizkuntza-aukera errespetatuz</p> <p>4.1.8. Herri Administrazioetako kargu publikoek euskararen erabilerarekiko jarrera eraginkorra agertzea, bai herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko, baita euskara ere lan hizkuntza izan dadin</p> |
| <b>NEURRIA</b>  | 4.2. Euskara ere lan hizkuntza izateko neurriak hartzea                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |
| <b>EKINTZAK</b> | <p>4.2.1. Euskara zerbitzu hizkuntza ez ezik lan hizkuntza ere izan dadin bideak jartzea. Dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatua duten langileen eta, edozeinetara ere, euskara erabiltzeko gai den herri-langile ororen ohiko lan hizkuntza izango da euskara ere neurriren batean, progresiboki handiagoa izango den neurrian. (Neurri hori administrazio bakoitzaren hizkuntza kudeaketako planean zehaztuko da, besteak beste kontuan harturik aipatu planean ezarritako helburuak eta bitartekoak,</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |

|                 |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
|-----------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|                 | <p>erakundearen hizkuntza egoera, zerbitzu administratiboaren izaera, herri-langileen hizkuntza gaitasuna eta jarrera, eta administrazioaren jarduereremuaren ezaugarri soziolinguistikoak; beti ere herritarren hizkuntza aukeraren kalterik gabe)</p> <p>4.2.2. Euskara ere ohiko lan hizkuntza izango duten herri-langileei beren lan jardunerako lagungarri zaizkien bitartekoak jartzea</p> |
| <b>NEURRIA</b>  | 4.3. Langileen euskara-gaitasuna etengabe hobetzeko neurriak hartzea                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
| <b>EKINTZAK</b> | <p>4.3.1. Hizkuntza-eskakizunen egiaztapenak areagotzeko neurriak hartzea</p> <p>4.3.3. Herri Administrazioetako kargu publikoen euskararen ezagutza hobetzeko neurriak hartzea</p> <p>4.3.4. Euskara lan hizkuntza duten langileentzako prestakuntza iraunkorra bultzatzea (prestakuntza orokorra euskaraz nahiz euskara erabiltzeko prestakuntza berezia)</p>                                  |
| <b>NEURRIA</b>  | 4.6. Kanpoko komunikazioan euskararen erabilera gehitzea                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |
| <b>EKINTZAK</b> | <p>4.6.1. Komunikazio planak garatzea euskara erabiltzeko gai diren herritarrek euskararen hautua egin dezaten lagundu eta sustatzeko</p> <p>4.6.4. Web orrietan euskararen presentzia gehitzea, komunikagarritasuna zainduta</p>                                                                                                                                                                |
| <b>ESPARRUA</b> | 6. Arlo sozio-ekonomikoa                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |
| <b>NEURRIA</b>  | 6.1. Euskara planak zabaltzeko babesa eta laguntza ematen jarraitzea eta diru-laguntzen sistema etengabe hobetzea (Toki erakundeak)                                                                                                                                                                                                                                                              |
| <b>ESPARRUA</b> | 7. Aisia eta kirola                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |
| <b>NEURRIA</b>  | 7.1. Aisialdiko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzea                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
| <b>EKINTZAK</b> | <p>7.1.1. Euskarazko jarduerak bultzatzea bereziki haur eta gazteei zuzendutako ekintzetan</p> <p>7.1.3. Aisialdiko eskaintza modu zabalean ulertuz (zinema, antzerkia, literatura, telebista, musika, etab.), euskarazko ekimenak antolatzea adin</p>                                                                                                                                           |

|                 |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
|-----------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|                 | <p>tarte zehatzei begira, guraso gazte eta hurrei batez ere.</p> <p>7.1.4. Adineko herritarrei propio zuzendutako aisia- eta heziketa-jarduerak antolatu eta zabaltzea</p>                                                                                                                                                                                                                                  |
| <b>NEURRIA</b>  | 7.8. Kirolaren esparruko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera sendotzea                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |
| <b>EKINTZAK</b> | <p>7.8.2. Herri edota hirietan kirol-arloan diharduten kolektiboekin lankidetzan protokoloak bultzatzea, entrenatzaile, begirale, irakasle, prestatzaile, arbitro eta buruzagien hizkuntza-trebakuntza antolatzeke eta kirol-ekintzetan euskararen presentzia bermatzeko uneoro</p> <p>7.8.4. Entrenatzaileak trebatzeko eta horientzako titulu ofizial eta ez ofizialak lortzeko ikastaroak antolatzea</p> |
| <b>ESPARRUA</b> | 8. Liburugintza                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
| <b>NEURRIA</b>  | 8.1. Irakurzaletasuna bultzatzea                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |
| <b>EKINTZAK</b> | <p>8.1.4. Herri liburutegietan euskarazko liburuen presentzia bermatzea</p> <p>8.1.6. Herri liburutegietan euskarazko liburuen sustapena egitea</p>                                                                                                                                                                                                                                                         |
| <b>ESPARRUA</b> | 9. Kulturgintza                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
| <b>NEURRIA</b>  | 9.1. Euskarazko kulturaren kontsumoa bultzatzea                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
| <b>EKINTZAK</b> | 9.1.3. Hurrei eta gazteei zuzendutako kultura ekoizpenak lehenestea                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |
| <b>NEURRIA</b>  | 9.4. Euskarazko kultura produktuen zabalkunde egokia egitea                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |
| <b>EKINTZAK</b> | 9.4.1. Sarean kultura agenda eguneratu eta erakargarria izatea                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |
| <b>ESPARRUA</b> | 10. Publizitatea                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |
| <b>NEURRIA</b>  | 10.2. Herri-administrazioen euskarazko publizitatea hedabideetan argitaratzea                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |

|                 |                                                                                                                                        |
|-----------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>EKINTZAK</b> | 10.2.1. Arlo guztiei buruzko publizitate instituzionala euskaraz ere txertatzea, euskarazkoetan ez ezik gaztelaniazko hedabideetan ere |
|-----------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

|                 |                                                                                                                                                                                  |
|-----------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>ESPARRUA</b> | 14. Sentsibilizazioa eta motibazioa                                                                                                                                              |
| <b>NEURRIA</b>  | 14.2. Familia transmisioa                                                                                                                                                        |
| <b>EKINTZAK</b> | 14.2.1. Gurasoengan, guraso izango direnengan eta aitona-amonengan eragitea, euskararen familia bidezko transmisioa ziurtatzeko                                                  |
| <b>NEURRIA</b>  | 14.3. Irakaskuntza                                                                                                                                                               |
| <b>EKINTZAK</b> | 14.3.1. DBHn, Batxillergoan edo Lanbide Heziketan sartzearen dauden gazteengan eta senideengan eragitea, euskarazko ereduaren ikasten jarraitzeak dakartzan abantailak azaltzeko |
| <b>NEURRIA</b>  | 14.5. Administrazioa                                                                                                                                                             |
| <b>EKINTZAK</b> | 14.5.1. Euskaraz jarduteko gai diren herri-langileak euskara erabiltzeko bideak erraztea eta sustatzea                                                                           |
| <b>NEURRIA</b>  | 14.6. Arlo sozioekonomikoa                                                                                                                                                       |
| <b>EKINTZAK</b> | 14.6.4. Errotulazio finkoa eta noizbehinkakoa euskaraz ere jartzeko kanpainak martxan jarri, merkataritza elkarrekin bitartez                                                    |
| <b>NEURRIA</b>  | 14.7. Aisia eta kirola                                                                                                                                                           |
| <b>EKINTZAK</b> | 14.7.4. Herriko klub eta kirol taldeekiko lankidetzaren bultzatzea, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko          |
| <b>NEURRIA</b>  | 14.8. Liburugintza                                                                                                                                                               |
| <b>EKINTZAK</b> | 14.8.1. Euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenak sustatzea                                                                                                               |



|                 |                                                                                                       |
|-----------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>NEURRIA</b>  | 14.9. Kulturgintza                                                                                    |
| <b>EKINTZAK</b> | 14.9.1. Kultura elkarteekiko elkarlana sustatzea, haietan euskararen erabilera sustatzeko             |
| <b>ESPARRUA</b> | 15. Barruko proiektzioa                                                                               |
| <b>NEURRIA</b>  | 15.5. Euskara eta euskarazko kultura ezagutaraztera bideratutako ekitaldi eta ikuskizunak diseinatzea |
| <b>EKINTZAK</b> | 15.5.3. Euskararen nazioarteko egunaren proiektzioa sendotzea                                         |

### 8.1 Ekintzak aurrera eramateko jarduerak

Udalak onetsitako planean onarturiko ekintzak lantzeko jarduerak egin izan dira orain arte ere, baina plangintzaldiaren azken urterako, 2017rako, honako jarduerak antolatu dira, kontuan izanda gaur egun dauden baliabideak ez direla oso ugariak.

Euskara erabiltzearen aldeko jarrera eta eleaniztasuna lantzeko eskuliburuak ateratzea egokia deritzogu. Eskuliburu horiek ume elebidunei zuzendutakoak izango dira, eta jarduera hori hitzaldiekin osatuko da. Hitzaldiak, ume zein guraso elebidunei zuzendutakoak.

Sentsibilizazio eta motibazioa lantzeko modu bat informazioa zabaltzea da. Ikusten dugu guraso askok ez dituela euskara eta euskal kulturaren gaineko produktuak ezagutzen, beraz, aldiro-aldiro, batez ere Gabon sasoiaren aurretik, euskal produktuen katalogoa banatu, edota katalogoan agertzen diren produktuak ezagutu ahal izateko, tailerrak antolatu.

Eta azkenik, arlo honi loturik garrantzitsua denez guraso euskaldun eta mistoen kasuan, seme-alabekin duten hizkuntza jokabidea jorratzea, hitzaldiak antolatuko dira horretan

intziditzeko, eta *Eman Giltzaren* berri ere emango da. Ekintza horien bidez, hizkuntzaren transmisioan haien paperak betetzen duen garrantzia azalduko zaie.

Euskararen erabilera sustatzeko familiei begira euskara erabiltzeko guneak sortuko dira, hala nola, euskararen aldeko jaietara joateko irteerak, tailerrak eta helburu bera izan dezaketen bestelako ekintzak.

Lehen Hezkuntzan diharduten ikasleen etxeetara Eskola Agenda bidaliko da. Eskola agendak bi helburu nagusi ditu; batetik, euskal kultura ezagutaraztea eta bestetik, irakasle eta etxekoen arteko oinarritzko harremana euskaraz izatea. Horrez gain, eskoletan egiten diren batzarretan euskararen presentzia izan dadin saiatuko gara, horretarako, inguruko ikastetxeetako zuzendaritza taldeetara Eskola Agenda honen helburuaren berri emango diegu postaz. Gutun hori baliatuko dugu agenda honen bitartez euskara sustatzen laguntzeko beste urrats bat eman nahi dugula azaltzeko.

Irakaskuntzarekin jarraituz, nahiz eta herrian ikastetxerik ez izan, ekintza batzuk proposatzen ditugu. Aurre-matrikulazio sasoian informazio kanpainak burutu, eta horietan etorkinentzako mezuak prestatu, baita nerabeei begirakoak ere, esaterako, Nahi Dudalako Kanpaina, zeinaren bitartez Lanbide Heziketa edota Batxilergoa euskaraz egiteak ekar diezazkiekeen onuren berri emango zaien.

Eskola orduetatik kanpo euskara sustatzea zailagoa izan ohi da, batez ere, Zierbena bezalako herri erdaldunetan. Ildo horri jarraituz, ezinbestekoa da euskararen erabilera arlo ez formalean bultzatzea eta sustatzea euskarak aurrera egingo badu. Horregatik, eta aurreko urteetan, etxeko lanak egiten laguntzeko jarduerak batetik, eta, bestetik, umeen aisialdia euskaraz izan dadin egindako ekimenak izandako arrakasta ikusirik, aurten ere antzeko egitasmoarekin jarraituko da, eta indartzea proposatu da, haur eta gazteek euskara erabili, ikasi eta euskaraz goza dezaten.

Kontuan hartu behar dugu programa horren helburua haur eta gazteek eskolatik kanpo euren aisialdian euskara erabiltzea dela, eta egitasmo horrekin bete betean lortzen dela helburu hori.

Aipatu bezala Zierbenan ez dago ikastetxerik, eta goizean goiz haur eta gazteak herritik ateratzen dira bakoitza bere ikastetxera. Arratsaldean, bueltan izaten dira bostak aldera, eta bada tarte jarduerak antolatzeke. Gune horietarako herriko nerabeak inplikatzeko egokiena litzateke, eta ordainetan, haienezako interesgarriak izan daitezkeen ikastaroak antolatuko ditugu, eta udarako monitore lanak egiteko prestatuko ditugu. Herrian udan ere ekintzak antola daitezke.

Egitasmoaren nondik norakoei dagokienez, honela proposatu da haur eta nerabeei zuzendutako programa: Udalak euskararekin arazoak dituzten haurrei (edota haurrei laguntza euskaraz eman ezin diezaieketen gurasoei) eskolako etxeko-lanak egiten laguntzeko zerbitzua ematen jarraitzea, ikasturteak irauten duen bederatzi hilabeteetan. Izan ere, urte hauetan guztietan, hainbat izan dira euskaraz ez dakiten gurasoek planteatutako kezka, eta beren haurrak “D” ereduaren matrikulatzeari buruzko kezka azaldu dituztenak. Horregatik guztiagatik, proposatu dugu udalak udalerriko haur eta gazte horiei laguntza hori ematen jarraitzea.

Baina, xedea ez da etxeko-lanak euskaraz egiten laguntzea soilik. Xedea da, aisialdia euskaraz ere bizi daitekeela barneratzen laguntzea, eta era natural batean euskara erabiltzen has daitezela. Horrela, urtean zehar tailerrak, jolasak, irteerak eta abar antola daitezke.

Jarraitzeko, nerabeek eta euskara batzordeak elkarlanean jarduera zehatz batzuk antolatuko dituzte. Euria ari duenean Kultur Etxean bilduko dira, eta ateri denean herriko auzo desberdinetan (ekimenaren arabera). Astelehenero kartela jarriko da aste horretan egingo denaz informatzeko. Euria ari duenean nerabeek irakasle papera hartu, eta txikienei irakurtzen, marrazkiak egiten, mahai jokoa aritzen edo eskulanetan lagunduko diete. Kanpoko ekintzak proposatzen direnean gaia jarriko da, eta hori landuko dute: antzinako jolasak (goma saltoa, soka saltoan...), herri-kirolak...

Aisiak eta kirolak harreman handia izan dezakete. Izan ere, asko dira aisialdian kirola egitea erabakitzen duten herritarrak. Hori dela eta, kirol jarduerak euskaraz ekimena ere

antolatuko da. Surf ikastaroak haur eta nerabeentzat, Ikastolen Elkartekoekin arraunketa tailerra (honetarako harremanetan harriko gara udalerrian dagoen Arraun Elkarterekin, bere lokalak erabili ahal izateko.

Kirolean erreferentzialak diren kirolari batzuek beren nondik norakoak azaltzeko hitzaldiak emango dituzte, beren bizipenen berri emateko, eta kirola euskaraz ere praktika daitekeela azaltzeko.

Euskalduntze-Alfabetatzean berebiziko garrantzia emango zaio guraso, eta adinekoentzako ikastaroak antolatzeari, ahalegin berezia egingo da taldeak osatzen, eta euskaltegian ikasten dutena erabili dezaten guneak sortuko dira, horretarako *Gurasolagun / Berbalagun* taldea abian jartzeko ahalegin berezia egingo da.

Administrazioarekin lotutako jarduera batzuk ere proposatu dira. Lehenik, herritarren eta administrazioaren arteko harremana hizkuntza ofizialetako edozeinetan egin daitekeela dio legeak, beraz, lehenik eta behin herritarrei informazioa bidaliko zaie eskubide horren inguruan. Bigarrenik, herriko hizkuntza paisaia guztia (asko jada badago) euskaraz ere jartzen jarraituko da. Hirugarrenik, politikariekin eta administrazioko langileekin arituko gara. Politikariei euskara erabili eta sustatzearen kontzientzia hartu behar dutela adieraziko zaie, eta bitartekoak jartzen jarraituko da administrazioko langileak euskalduntzeko eta euskaraz trebatzeko. Ordenagailuetan euskarazko programak jarriko zaizkie, eta euskaraz lan egiten lagunduko dieten aplikazioen berri emango zaie, besteak beste, Euskalbar, Xuxen eta abar.

## **9 2018tik aurrera ESEP helburuen artean zeintzuk aukeratu aztertu eta irizpideak markatu. Gure proposamena.**

---

Zierbenan 2018an euskararen egoera zein izan daitekeen (BISIOA) aztertu dugu, eta, ondorioak atera ostean, aurrera begirako lanean helburu nagusitzat honako hau proposatzen dugu:

Zierbenako herri bizitzan, funtzio eta gune desberdinetan euskaraz hitz egiteko aukerak handitzea eta, bereziki, kaleko erabileran eragina duten esparruetan (aisia, kultura...) eta adin tartetean (haur eta gazteak) eragitea.

Horretarako erdaldunak euskarara erakartzea izango da zeregin nagusienetakoa, euskararekin harremanetan jartzea. Euskararekin harremanetan jartzeko, bakoitzaren abiapuntua hartu beharko da kontuan, eta Zierbena bezalako gune erdaldunean hainbat kasu ezberdin aurki daitezke:

- Euskararekin inolako harremanik ez dutenak, euskararekin harreman gutxi dutenak eta euskararekin harreman handia dutenak (izan ere, badira hainbat familia etxean euskaraz bizi direnak, eta udalerritik kanpo daudenean ere euskaraz bizi direnak).
- Euskararekin harremana badutenak (gutxi edo gehiago), eta, gainera, euskara zerbait badakitenak (ulertzen dutenak, zertxobait hitz egiten dutenak...). Ia euskaldunak, alegia. Abiapuntuak oso ezberdinak direnez, euskararekiko harremana bilatzeko garaian, estrategia edo bide ezberdinak eskaintzen ahalegindu beharko dugu. Hau da, tipologia ezberdinentzako egokiak izan daitezkeen jarduerak eskaintzen ahalegindu beharko dugu: euskara erabiltzeko taldeak, euskara ikasteko eskolak, seme-alaben jarreretan eragiteko tresna sinpleak, eta abar.

## 9.1 ESEP zein populazio talderi begira egin behar da bereziki


Hizkuntza plangintzaren **jabekuntza**, **erabilera** eta **elikadura** helburu estrategikoak kontuan hartuta, honela ikusten ditugu aurrerantzean jorratu beharreko populazio taldeak.

**Euskararen jabekuntza edo eskuratze-prozesuan** bi esparru bereiziko ditugu: “Familia bidezko transmisioa” eta “Helduen euskalduntze-alfabetatzea”. Irakaskuntzaren esparrua beste era batera landu beharko dugu. Esan bezala ikastetxerik ez dago, baina badago seme-alabak eskolatuak dituzten guraso talde bat. Horietan, seme-alabak eskolatuak dituzten gurasoetan jarri behar dugu fokua. Gurasoek seme-alabentzako egiten duten ereduaren hautuan eragin behar dugu, eta, horretarako, kanpaina bereziak antolatzen jarraitu behar dugu: etxez etxe azalduko ditugu D ereduan matrikulatzearen onura edo alde onak, eta berau hautatzearen garrantzia. Informazio hori osatzeko pertsona erreferentzialen hitzaldiak antolatuko ditugu.


Euskarak gaur arte biziraun badu, zalantzarik gabe, belaunez belaun familia bidezko transmisioa gertatu delako izan da, hori baita hizkuntza baten biziraupena ziurtatzen duen biderik natural, eragingarri eta merkeena.

Eustatek argitaratutako datuen arabera (EAEko Biztanleria eta Etxebizitza zentsua, 2011) Euskal Herrian euskara familian nola transmititu den ezagutzeko modua dugu, eta ikus dezakegu Zierbenan transmisio hori eten egin zela noizbait.

Datu horietan ikus dezakegu, Zierbenako etxeen % 2,73an soilik erabiltzen dela euskara, eta % 3,63an euskara gaztelaniarekin batera erabiltzen dela, hala ere, ondorengo tauletan ikus daitekeenez, 2006tik 2011ra euskararen erabilerak gora egin du (pixka bat baino ez bada ere).



Iturria: Euskal AEko biztanleria, lurralde-eremuaren, ama-hizkuntzaren eta etxean hitz egiten den hizkuntzaren arabera. 2006



Iturria: Euskal AEko biztanleria, lurralde-eremuaren, ama-hizkuntzaren eta etxean hitz egiten den hizkuntzaren arabera. 2011

Taula horietatik ondorioztatu dezakegu gero eta familia gehiago direla etxean euskara erabiltzen dutenak, bai euskara besterik erabiltzen ez dutenak, bai euskara eta gaztelania tartekatzen dutenak. Hortaz, erabilera hori areagotzen jarraitzeko neurriak hartu beharko dira. Izan ere, gero eta gazte gehiago euskalduntzen ari direla ikusi dugu; hortaz, etorkizunean guraso bihurtuko diren horiengan eragin beharko da, euskara erabiltzen has daitezen.

Horiek horrela, ondorengoetaratze kanpainekin jarraitzea proposatzen dugu. Familia eremuan euskara erabiltzearen garrantzia azaleratu behar dugu kanpaina horietan, eta berdin dio nola hedatzen den, aisialdiko ekintzen bidez, kirolean edo kulturgintzan, baina erabilerari eman behar diogu bultzada.

Halaber, nerabe eta gazteekin elkarlana egin behar da, eta haiekin elkarlanean aukeratu euskara sustatzeko ekimen bereziak zeintzuk izan daitezkeen. Betiere euskarari balio positiboa emanaz, eta haien gustuekin bat etor daitezkeen ekimenak aukeratuta.

Beste maila batean, euskalduntze eta alfabetatzea kokatuko dugu. Izan ere, badira Zierbenan hainbat herritar azken urteotan euskara ikastera animatu direnak, eta euskaltegi desberdinetan izena ematera animatu direnak. Bide hori jorratzen jarraitu behar dela deritzogu, euskaldundu barik ezinezkoa baita euskara erabiltzea. Hori dela eta, uste dugu euskalduntzeko eskoletarako ematen diren diru-laguntzak ematen jarraitu behar dela.

Eskualdeko udalerrietako Euskara Zerbitzuekin orain arte hainbat izan dira elkarlanean egindako ekimenak, besteak beste, irteerak antolatu, aisialdiko monitoreak trebatzeko ikastaroak eta abar. Oraingo honetan ere, elkarlan horretan sakontze lana egin behar dela deritzogu. Hori dela eta, hiruhilero edo bi hilerik behin bilerak egitea egokia begitantzen zaigu.

Administrazioa euskalduntzen jarraitzea jarriko dugu hurrengo maila batean, neurri apalagoan bada ere, lehenago adierazi bezala, baduelako bere garrantzia administrazioak euskaraz artatzea.

Eta azken mailan, lan esparrua kokatuko dugu. Azkenerako utzi dugu, orain arte egindako ahaleginek emaitza urriak izan baitituzte. Gure indarrak neurtu behar ditugu, eta lehenbizi lorgarriak diren helburuetan egin behar ditugu ahaleginak, alferrik erretzen ibili gabe. Hori dela eta, paisaia linguistikoa euskalduntzeko ahalegina egingo da. Printzipioz, besterik ez.



**Euskararen erabilera** gehien eragiten duten faktoreak honako hauek dira: hiztun kopurua, hiztunek euskaraz egiteko duten gaitasuna edo erraztasuna, eta aukerak, inguruan harreman sare euskalduna izatea, eta, azkenik, hizkuntzarekiko atxikimendua. Horregatik ondo zaindu behar dira, hizkuntzaren ikuspegitik betiere, familiarekin eta ingurunearekin lotutako jardunbide guztiak: kultura, aisia, kirola, teknologia berriak, administrazioa, ostalaritza (Zierbenan ez baitago bestelako merkataritzarik), eta bestelako zerbitzu eta jarduerak. Lehenago esan bezala, lan mundua aurreragoko fase batean lantzeko utziko dugu.

**Euskararen elikadurari** dagokionean, euskaraz sortzen den materialaren berri emango diegu herritarrei, euskararen sorkuntzaren berri izan dezaten.

Hona gure proposamena:

| ZIERBENAKO ESEP PROPOSAMENA 2018-2022 |                                                        |                                                                                                             |                                                                                              |                                                                                          |
|---------------------------------------|--------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------|
| ESPARRUA:                             | FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA                            |                                                                                                             |                                                                                              |                                                                                          |
| HELBURU ESTRATEGIKOA                  | NEURRIA                                                | ADIERAZLEAK                                                                                                 | ESEPeKO EKINTZA                                                                              | EKINTZA                                                                                  |
| Euskararen jabekuntza                 | 1.<br>Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea | Euskararen erabilera datuak<br>Ekimenetan parte hartu duten guraso kopurua<br>D ereduko matrikulazio datuak | 1.1 Gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako produktuak ezagutarazi eta eskura jartzea | 1.1.1 Euskal produktuen katalogoak, ipuinak, kantak...eskaini                            |
|                                       |                                                        |                                                                                                             | 1.2 Guraso eta gurasogaien hizkuntza-ohituren aldaketarako erraztasunak ematea               | 1.2.1 Kontzientziazio eta sentiberatze programak martxan jarri: hitzaldiak, materiala... |
|                                       |                                                        |                                                                                                             |                                                                                              | 1.2.2 Gurasoentzako sentiberatze                                                         |

|  |                                                               |                                                                         |                                                                                             |                                                                            |
|--|---------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------|
|  |                                                               |                                                                         |                                                                                             | hitzaldiak                                                                 |
|  |                                                               |                                                                         |                                                                                             | 1.2.3<br>Gurasoentzako<br>euskara eskolak                                  |
|  | 2. Familia<br>barruan<br>euskararen<br>etabilera<br>sustatzea | EUSTAT-eko datu<br>soziolinguistikoak<br>(inkesta<br>soziolinguistikoa) | 2.1 Euskararen erabilerarako<br>dauden sozializazio guneak<br>baliatzea eta berriak sortzea | 2.1.1 Familia<br>ludotekak/guneak<br>sortu                                 |
|  |                                                               |                                                                         |                                                                                             | 2.1.2 Umeek<br>gurasoei euskara<br>transmititzeko<br>aukerak sortu         |
|  |                                                               |                                                                         |                                                                                             | 2.1.3 Umeek<br>aitona-amonei<br>euskara<br>transmititzeko<br>aukerak sortu |

| ZIERBENAKO ESEP PROPOSAMENA 2018-2022 |                                                                                                                                    |                                                                                                            |                                                                                                                                                                                    |                                                                                                                                                                                                                                       |
|---------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| ESPARRUA:                             |                                                                                                                                    | IRAKASKUNTZA                                                                                               |                                                                                                                                                                                    |                                                                                                                                                                                                                                       |
| HELBURU<br>ESTRATEGIKOA               | NEURRIA                                                                                                                            | ADIERAZLEAK                                                                                                | ESEPeko EKINTZA                                                                                                                                                                    | EKINTZA                                                                                                                                                                                                                               |
| Euskararen<br>jabekuntza              | Herritarrek<br>euskarazko<br>irakaskuntzaren<br>aldeko hautua<br>egiteko<br>sentiberatzea.<br>Euskal<br>kulturako<br>erreferentzia | Eskolaz<br>kanpoko<br>euskarazko<br>eskaintza<br>kopurua<br>Eskolaz<br>kanpoko<br>euskarazko<br>ekimenetan | Ikasleen aisialdia eta<br>intereseekin loturiko<br>euskararen erabilera<br>suspertzea<br>Gazteentzako<br>erreferenteak izan<br>litezkeen<br>pertsonekin<br>(kirolari, musikari...) | Gurasoen euskara ezagutza eta<br>motibazio maila hobetzea eta<br>areagotzea. Beren haurrak D<br>ereduan matrikula ditzaten<br>informazioa ematea. Eskutitza<br>bidali DBH amaitzen duten ikasleei<br>euskaraz ikasten jarrai dezaten. |

|  |                                                                        |                                                 |                                  |  |
|--|------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------|----------------------------------|--|
|  | eta<br>erreferenteak<br>erabili ikasleak<br>motibatze<br>eta girotzeko | gazteen eta<br>umeen parte-<br>harte<br>kopurua | hitzaldi edo saioak<br>antolatu. |  |
|--|------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------|----------------------------------|--|

| ZIERBENAKO ESEP PROPOSAMENA 2018-2022 |                                                                                                        |                                            |                                                 |                                                                |
|---------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------|-------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------|
| ESPARRUA:                             | EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA                                                                              |                                            |                                                 |                                                                |
| HELBURU<br>ESTRATEGIKOA               | NEURRIA                                                                                                | ADIERAZLEAK                                | ESEPeKO EKINTZA                                 | EKINTZA                                                        |
| Euskararen<br>jabekuntza              | 1. Ezagutza<br>handitzea                                                                               | Ezagutza<br>datuak.<br>Diru-<br>laguntzak. | 1.1. Ezagutza<br>handitzeko neurriak<br>hartzea | 1.1.1 Euskara ikasten duten<br>ikasleentzako diru-laguntzak    |
|                                       |                                                                                                        |                                            |                                                 | 1.1.2 Euskara ikastaro berezituak<br>(jubilatuak, gurasoak...) |
|                                       | 2. Gelaz<br>kanpoko<br>jarduerak<br>sustatzea,<br>erabilera eta<br>praktika<br>uztartuko<br>dituztenak | Parte-harte<br>kopurua                     | 2.1 Mintzapraktika<br>egitasmoak<br>zabaltzea   | 2.1.1 Berbalagun egitasmoa                                     |
|                                       |                                                                                                        |                                            |                                                 | 1.2.1 Mintzodromoa                                             |

| ZIERBENAKO ESEP PROPOSAMENA 2018-2022 |                                                    |                                      |                                                                                                                               |                                                                                             |
|---------------------------------------|----------------------------------------------------|--------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------|
| ESPARRUA:                             | ARLO SOZIO-EKONOMIKOA                              |                                      |                                                                                                                               |                                                                                             |
| HELBURU<br>ESTRATEGIKOA               | NEURRIA                                            | ADIERAZLEAK                          | ESEPeKO EKINTZA                                                                                                               | EKINTZA                                                                                     |
| Euskararen<br>jabekuntza              | 1. Arlo sozio-<br>ekonomikoa<br>(sentsibilizazioa) | Hizkuntza<br>paisaiaren<br>neurketa. | 1.1 Herritarrengan eta<br>merkatari eta<br>ostalariengan<br>eragitea, herritarren<br>hizkuntza hautuari<br>egoki erantzuteko, | 1.1.1 Motibazio kanpaina<br>tabernari / ostalariekin                                        |
|                                       |                                                    |                                      |                                                                                                                               | 1.1.2 Tabernari eta ostalariei<br>hiztegi txikia, esaldi edota<br>menuen itzulpenak eskaini |

|  |  |  |                                |                                                         |
|--|--|--|--------------------------------|---------------------------------------------------------|
|  |  |  | hizkuntza paisaia<br>zaintzeko | 1.1.3 Errotuluak aldatzeko<br>laguntza teknikoa eskaini |
|--|--|--|--------------------------------|---------------------------------------------------------|

| ZIERBENAKO ESEP PROPOSAMENA 2018-2022 |                                                                                           |                                                                                 |                                                                                                                                                               |                                                                                                                                                                                                                                                                          |
|---------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| ESPARRUA:                             | KIROLA ETA AISIA                                                                          |                                                                                 |                                                                                                                                                               |                                                                                                                                                                                                                                                                          |
| HELBURU<br>ESTRATEGIKOA               | NEURRIA                                                                                   | ADIERAZLEAK                                                                     | ESEPeKO EKINTZA                                                                                                                                               | EKINTZA                                                                                                                                                                                                                                                                  |
| Euskararen<br>erabilera               | 1. Aisialdiko<br>jardueretan<br>euskararen<br>presentzia<br>eta<br>erabilera<br>handitzea | Haur eta gazteen<br>erabilera                                                   | 1,1 Euskarazko<br>jarduerak bultzatzea<br>bereziki haur eta<br>gazteei zuzendutako<br>ekintzetan                                                              | 1.1.1 Ibilaldia, Kilometroak...<br>halako ekimenetan parte<br>hartzeko txangoak<br>1.1.2 Zierbenako udalak<br>antolatzen dituen aisialdiko<br>ekimenetan euskararen<br>presentzia bermatu<br>1.1.3 Sare Sozialetan<br>euskararen erabilera<br>bultzatzeko bideak aztertu |
|                                       |                                                                                           | Euskarazko ekintzetan<br>parte hartzen duen<br>ume, gazte eta guraso<br>kopurua | 1.2 Gazteen artean<br>euskararen irudia<br>zehaztu, hobetu eta<br>indartu                                                                                     | 1.2.1 Pertsona ospetsuekin<br>motibazio kanpainak egitea                                                                                                                                                                                                                 |
|                                       |                                                                                           | Euskarazko eskaintza<br>kopurua                                                 | 1.3 Aisialdiko<br>eskaintza modu<br>zabalean ulertuz<br>(zinema, antzerkia<br>etab.) euskarazko<br>ekimenak adin tarte<br>guztietako herritarrei<br>zabaltzea | 1.3.2 Euskal Produktuak<br>ezagutzera ematea                                                                                                                                                                                                                             |
|                                       | 2. Kirolaren<br>esparruko<br>jardueretan<br>euskararen<br>presentzia<br>eta<br>erabilera  | Haur eta gazteen<br>euskararen erabilera<br>datuak                              | 2.1 Euskal<br>herritarrentzat<br>kirolaren eremuan<br>erakargarriak diren<br>jarduera, ekintza eta<br>zaletasunetan<br>euskarazko eskaintza                   | 2.1.1 Kirol-arloan euskararen<br>erakargarritasuna landu eta<br>era egokian proiektatu eta<br>hedatzea<br>2.1.1 Euskarazko materialaren<br>sorkuntza eta hedapena<br>sustatzea                                                                                           |

|  |           |  |                                         |                                                                                                  |
|--|-----------|--|-----------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------|
|  | handitzea |  | areagotzea eta horren eskaera sustatzea | 2.1.3 Pertsona erreferentzialen hitzaldiak<br>2.1.4 Ikastaroak eta tailerrak euskaraz antolatzea |
|--|-----------|--|-----------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------|

| ZIERBENAKO ESEP PROPOSAMENA 2018-2022 |                                               |                                     |                                                                   |                                                                                                      |
|---------------------------------------|-----------------------------------------------|-------------------------------------|-------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| ESPARRUA:                             | KULTURGINTZA                                  |                                     |                                                                   |                                                                                                      |
| HELBURU ESTRATEGIKOA                  | NEURRIA                                       | ADIERAZLEAK                         | ESEPeko EKINTZA                                                   | EKINTZA                                                                                              |
| Euskararen elikadura                  | 1. Euskarazko kulturaren kontsumoa bultzatzea | Euskarazko kultur eskaintza kopurua | 1.1. Haurrei eta gazteei zuzendutako kultura ekoizpenak lehenstea | 1.1.1 Euskarazko ikuskizun erakargarriak herrira ekarri                                              |
|                                       |                                               |                                     |                                                                   | 1.1.2 Haurrei eta gazteei zuzendutako ekitaldietan euskara lehenstea                                 |
|                                       |                                               | Parte hartze kopurua                | 2.1 Elebidun pasiboak erakartzeko kultura ekintzak antolatzea     | 1.2.1 Tailerrak antolatzea eiskal kultura kontzientzia bultzatzeko eta elebidun pasiboak erakartzeko |

| ZIERBENAKO ESEP PROPOSAMENA 2018-2022 |                                                               |                                      |                                                                     |                                                                         |
|---------------------------------------|---------------------------------------------------------------|--------------------------------------|---------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------|
| ESPARRUA:                             | KOMUNIKAZIOA (BARNE PROIEKZIOA)                               |                                      |                                                                     |                                                                         |
| HELBURU ESTRATEGIKOA                  | NEURRIA                                                       | ADIERAZLEAK                          | ESEPeko EKINTZA                                                     | EKINTZA                                                                 |
| Komunikazioa                          | 1. Euskara eta euskarazko kultura ezagutaraztera bideratutako | Ekitaldietan parte-hartzaile kopurua | 1.1 Euskararen eta euskarazko kulturaren gaineko aurkezpenak egitea | 1.1.1 Euskaraz sortzen den materiala ezagutzera ematea, liburutegian... |

|  |                                      |  |                                                                                                                                           |                                                                                                                                                                                                                                                                         |
|--|--------------------------------------|--|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|  | ekitaldi eta ikuskizunak diseinatzea |  | 1.2 Euskararen nazioarteko egunaren proiektzioa sendotzea                                                                                 | 1.2.1 Abenduaren 3ko astean euskaraz egiten direna dierazpen guztien koordinazioa eta komunikazioa hobetu<br><br>1.2.1 Udalaren aqtxikimendua eta inplikazioa bilatu abenduaren 3lp ekitaldietan; adierazpen instituzional bat egin edo aurkezten denarekin bat egin... |
|  |                                      |  | 1.3 Webgune erakargarri eta edukiz betea den orrialdearen bitartez, euskarari eta euskal kulturari buruzko informazio aberatsa eskaintzea | 1.3.1 Udalaren euskararen webgunea dinamizatu eta edukiz bete                                                                                                                                                                                                           |

## 9.2 ESEPen jarraipena eta balorazioa

Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteari begira, neurri bakoitzaren betetze-maila neurtzeko adierazleak proposatu behar direla deritzogu. Udalak, urtez urteko plana onartzen duenean, adierazle horiek landu, doitu eta egokitu beharko ditu dauzkan baliabideen arabera. Zierbenan orain arte erabili diren adierazleekin jarraitzea proposatzen dugu, antolatzen diren ekimenetan izena ematen duen eta horietako bakoitzean parte-hartzen duen parte-hartzaile kopurua, alegia, hori izango baita Zierbena bezalako udalerrri batean, plana ondo burutzen ari den neurtuko duena.

Planean bertan, lehentasunezko ekintzak proposatzen dira. Hala ere, orain arte aipatu dugun bezala, hau ez da proposamen itxia ez eta aldaezina ere. Egoeraren eta unearen arabera ekintzak egokitu beharko dira, berriak gehituz edo daudenen egitekoa

berraztertuz. Hortaz, Zierbenako Udalak bere inguruko errealitatea kontuan hartuta neurrien lehentasuna edota gauzatze-garaia zehaztuko du urtez urteko kudeaketa planean. Halaber, komenigarria izango litzateke Euskararen Aholku Batzordea indartzea, planaren jarraipena egiteko gune nagusia berori izan dadin.

Hona hemen Euskararen Aholku Batzordea osatzeko egiten den proposamena:

- Nola antolatu? Antolaketa parte-hartzailea, komunikatiboa, konfiantza giroa sustatuko duena eta partaideek bere sentituko dutena.

- Zertarako? Planari jarraipena egiteko eta planaren inplementazioan aholkuak emateko. Izan ere, Batzordearen helburu nagusia izango da urteko kudeaketa plana betetzen dela zaintzea, baita hobetzeko iritzi eta proposamenak ematea ere.

- Zeinek hartu behar du parte? Gehienez ere, 15 pertsonako talde finkoa eta guztiz boluntarioak osatuko du Euskararen Aholku Batzordea. Hala ere, zenbait helburutarako lan-talde txikiagoak egitea posible litzateke. Parte-hartzaileek ordezkioak izendatu beharko lituzkete.

- o Zierbenako euskara arloko zinegotzia
- o Euskara Teknikaria
- o Alderdi politikoetako ordezkariak
- o Zierbenako Kirol, aisialdi eta kultur Elkarreketako ordezkariak
- o Zierbenako norbanako euskal zaleak

- Zer gai landu behar da? Plan estrategikoaren eta urtez urteko Kudeaketa planaren helburuak, ekintzak eta neurriak aztertu beharko lirateke.

- Zer maiztasun izan behar du? Urtean ohiko hiru bilera. Hala ere, beharrezkoa den guztietan ezohiko bilerak deitu ahal izango dira. Bilerak guztien aurretik, partaide guztiei bidaliko zaie deialdia eta gai-ordena, zortzi egun lehenago gutxienez. Bilerak guztien ostean, berriz, akta bidaliko zaie parte-hartzaile guztiei.

## 10 Ondorioak

---

Egindako azterlan honetan hainbat ondoriotara iritsi gara, eta gehienak lanean zehar aipatuta geratu diren arren, laburbildu egingo ditugu atal honetan. Saiatuko gara ondorioak azaltzen, eta ondorio horiek soluzio edo hartutako erabakiekin lotzen.

Eustateko inkestatik ateratako datuen arabera, azken urteotan populazioak gora egin du udalerrian, baita euskaldunen portzentajeak ere. Eta hori, hein handi batean, hezkuntzan egindako ahaleginari esker gertatu da.

2011ko inkesta horretan, azken urteotan euskararen ezagutza handitu egin dela islatzen da. Alabaina, datuei erreparatuta argi ikusten da euskaldun gehienak 50 urtera artekoak direla, eta hortik gora asko jaisten dela kopurua, eta adineko gehienak erdaldunak direla.

Datu horien irakurketatik ondorioztatu dugu indar berezia jarri behar dugula 50 urtetik beherako herritarretan, hor jarri behar dugu fokua. Datuek diote ezagutzak gora egin duela, baina orain hizkuntza erabiltzera bultzatu behar dugu. Adin tarte horretan, guraso berri, eta haur eta gazteak ditugu, eta horiekin egin behar dugu lan, haietatik sortuko baitira etorkizuneko euskaldunak baldin eta hizkuntza transmititzen hasten badira, transmisioa baita Zierbenan aspaldi galdu zena eta galduta dagoena oraindik gaur. Erabilera da bultzatu behar duguna, beraz; ezer gutxi lortuko baitugu euskara erabiltzen ez duten euskaldun berri gehiago izanda.

Aurrerapauso handiak eman direla ikusi dugu, hala ere, oso ahula da euskarak duen presentzia hainbat gizarte-esparrutan, gehien aurreratu duen eremuetan egoera ez baita inola ere erdaren parekoa. Horregatik, erabileraren egunerokotasunetik oraindik urrun gaudela ikusita, lehentasunak finkatu ditugu, zaila izango baita esparru guztietara era batera heltzea.



Gazte, nerabe eta haurrak dituzten gurasoekin lan berezia egin nahi dugu, baina, beste maila batean, uste dugu administrazioa langileekin ere lanean jarraitu behar dugula, eta erdaldunak euskalduntzen jarraitu behar dugula.

Udaleko langileak euskalduntzeari ez diogu lehentasunik emango, baina haiekin ere lanean jarraituko dugu, administrazioa euskalduntzen jarraituko dugu. Uste dugu administrazioa langileek eredu izan behar luketela, eta hizkuntza ofizial biak menperatu beharko lituzketela, bertaratzen diren euskaldunen eskubideak errespetatuak izan daitezen.

Uste dugu euskara ikastearen aldeko kanpainak egiten jarraitzea ere komeni dela (hau ere beste maila batean). Batetik, herrian bizi diren erdaldunei begira, baina, batez ere, atzeritarrei begira. Azken horiei, herrira heltzen diren momentutik bertatik azaldu beharko genieke nolako herrira etorri diren eta zein den hizkuntzaren egoera. Horrela, hasiera-hasieratik sentsibilizazio lana egiten baitugu.

Ondorioak ikusita, pentsa dezakegu azken urteetan egindako lanak fruituak eman dituela baina ez dela nahikoa. Joera positiboa da, baina bide luzea dugu oraindik egiteko. Egitasmo honetan egindako hausnarketei esker, lehentasunak finkatu ditugu, eta espero dugu gauden geldialditik ateratzeko baliagarriak izatea.

## 11 Bibliografia eta erabilitako beste iturri batzuk

---

- EUSKO JAURLARITZA (2013). Euskal Herriko V. Inkesta Soziolinguistikoa. 2011: Euskal Herria, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa, Iparraldea. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Zierbenako Udalaren V. Plangintzaldiko Erabilera Plana 2013-2017
- Belen Uranga. *1.5 Hizkuntza–ekologiaz*. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Graduondokoa (2016-2017). Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- ZALBIDE, Mikel; ERIZE, Xabier. *1.3. Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko*. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Graduondokoa (2016-2017). Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Martinez de Luna, Iñaki eta Pablo Suberbiola (2010): *Hizkuntza-garapen iraunkor baterantz*. Hizkuntza Plangintza Ikastaroa, HIZNET
- *ESEP EAEko udalerrietan. 2014-2015eko jardueren bilduma*. Jose Inazio Mosteiro Robredo. 2015.
- “Euskararen bilakaera soziolinguistikoa (1981-2011)”. Mikel Zalbide. *Bat. Soziolinguistika aldizkaria*. 100. zenbakia. 2016.

### Beste iturri batzuk:

- Soziolinguistika Klusterra:  
<http://www.soziolinguistika.eus/>
- Euskal Estatistika Erakundearen (Eustat) webgunea:  
<http://www.eustat.eus/indice.html#axzz4YB9x0x5S>
- Zierbenako udalaren webgunea:  
<http://www.zierbena.net/es-ES/Paginas/default.aspx>
- Euskara Sustatzeko Ekintza Plana:  
[http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskara\\_agenda\\_estrategikoa/eu\\_def/Euskara%20Sustatzeko%20Ekintza%20Plana%20\(ESEP\).pdf](http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskara_agenda_estrategikoa/eu_def/Euskara%20Sustatzeko%20Ekintza%20Plana%20(ESEP).pdf)